



Aire aire

SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko garagarrikak 13, ostirala • 2. aldia • 467. zenbakia

GUaiXE.net



Elkar hartuta

Lau herritan ospakizunak izanen dira >>> 6

Etzegarate izena du portuak >>> 7

ZURE NEGOZIOA GIDAN IRAGARTZEKO DEITU

948 56 21 07
618 88 26 27

X. Aitzkozar krosa bihar jokoan >>> 19

Haur eskolen finantziario proposamena >>> 5

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



**Aitor Alberdi
Garcandia**
ZORIONAK maitia
zure 12. urtebetetze-
an!! Familiaren partetik.



**Miren Murua
Ugalde**
ZORIONAK politte!!!
Etxeko guztion partetik.
Eta bereziki Maiteren
partetik. Segi horrelaxe!!!



Jesus Mari Olmos?
Baiiii? Horren polita,
baina orain gehiago, e!!
ZORIONAK, berandu
baina seguru! Nor da?
Muxussssss.

garagarriak

13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Dr. Maha's Mirac Tonic. Garagarriaren 13an, ostiralean, 22:00etan Olatzagutiko Sutegi parkean.

Desvarios varios, Sykorax eta Aske. Garagarriaren 13an, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Altsasuko herri kantak II. Garagarriaren 14an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Trasteando.**

Petti. Garagarriaren 14an, larunbatean, 20:30ean Lakuntzako Sorgiñak tabernan.

Larrazpitek VIII. Garagarriaren 14an, larunbatean, 21:00etatik aurrera Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Los del Rayo. Garagarriaren 14an, larunbatean, Altsasuko Lurrazpi tabernan. 20:30ean akustikoa eta 23:00etan entxufatuta.

Ikasturte akaberako emanaldia. Garagarriaren 16an, astelehenean, 17:00etan Lakuntzako eskolako eremuan. **Musika eskolako ikasleak.**

Ikasleen entzunaldia. Garagarriaren 17an, asteartean, 17:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Musika eskola.**

Dantza

Nafarroako Dantzari Eguna. Garagarriaren 14an, larunbatean, 16:00etan Sakanako herrietan eta 19:00etatik aurrera Irurtzunen. **Orritz dantza taldea.**

Mendi irteerak

Lizarrusti-Etxarri. Garagarriaren 15ean, igandean, Irurtzungo Iratxo mendi taldea.

Olazti-Codes. Garagarriaren 15ean, domekan, 8:00etan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Lezkua eta Basaula lezea. Garagarriaren 15ean, domekan, 8:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 8:50ean Bioitza kanpinean. 40 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**



Iskizak denboraldiari agur

Ikasturte bukaera dela eta, erakustaldia egin zuen Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeak garagarriaren 5ean Altsasuko Burunda pilotalekuan. Iskizako talde guztiek ikasturtean barna landutako koreografiak eskaini zituzten, Burundara gerturatu zirenen gozamenarako.

Erakusketak

Uraren gazte foroa. Garagarriaren 15era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea institutua.**

Pintura ikastaroko lanak. Garagarriaren 14an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta garagarriaren 15ean, domekan, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara Olatzagutiko kultur etxean.

Hitzaldiak

Abortua libre eta doakoa. Garagarriaren

13an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Bilgune Feminista.**

El banquete. Expolio y desaparición de la CAN. Garagarriaren 14an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako udaletxeko batzar gelan. **Hizlariak: Patxi Zamora eta Alberto Gil.**

Bestelakoak

Bordetxe zirkoa. Garagarriaren 14an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Olatzagutian.

VII. pintura azkarreko lehiaketa. Garagarriaren 15ean, domekan, 9:00etatik aurrera Olatzagutian.

Kultur aniztasun eguna. Garagarriaren 15ean, igandean, 17:30etik aurrera Lakuntzako beheko zuhaizpean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 13an, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garagarriaren 16an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Nafarroako Dantzari Eguna, Altsasuko
hondakin bilketaz, Mank-en literatur
lehiaketetan sarituak...

Esataria: *Alfredo*

>> Irurtzun

Sakana dantzan jarri nahi du Irurtzunek Nafarroako Dantzari Egunean

Maialen Huarte Arano

Larunbatean izanen da 850 dantzari bilduko dituen egun handia

Azken ikutuak baino ez dira falta Nafarroako Dantzari egunerako. Irurtzun prestatzen ari da 850 dantzari baino gehiago hartzeko, edo gauza bera dena, Nafarroako 39 dantza talde oholta gainera igotzeko. Nafarroa Garaiak eta Baxe Nafarroak bat eginen dute dantzan. Irurtzunen elkartzeaz aparte, Sakana guztia jarri nahi du dantzan Irurtzuno Orritz Dantza taldeak: "Ez dugu Irurtzuner mugatu nahi dantzari eguneko jaia, herri gehiagotara ere iritsiko da Nafarroako Dantzari eguna eta bereziki sakanadarrek parte har dezaten nahi dugu", halaxe diote Orritz taldeko kide Urko Mauduitek eta Irati Gonzalezek. Arratsaldean izanen da dantza uholdea. Lehenbizi, dantzariak Sakanan barna barreiatuko dira, baita Lekunberrira ere. Horretarako zazpi udaletzek egin dute bat jaiarekin eta euren herrietan hartuko dituzte dantzariak. "100 dantzari baino gehiago ariko dira herri horietan, tartean, Olaztin, Altsasun, Lakuntzan, Etxarri-Aranatzen, Uharte-Arakilen, Hiri-



Irurtzuno Orritz taldeak 25 urte bete ditu, primerako osasunarekin, eta biharko Dantzari Egun bikaina antolatu du.

berrin, Egiarretan eta Izurdiagan", nabarmendu dute taldekideek. Guztiekin diote dantzari arratsaldeko lauretan.

Sakanako herrietara eta Lekunberrira iritsiko dira dantzariak, baina, Orritzek aurretik jarria dio erronka bere buruari: norberak bere herrian dantzariak ikusi ondoren Irurtzuner joatea. "Herriarrek mugiarazi nahi ditugu festa handi bat osatzeko". Kultura adierazpena izanen da larunbatekoa eta bat eginen dute folkloreak eta jaiak, hortaz egun

aproposa da guztien parte hartzea posible egiteko: "Nafarroa Irurtzuner atertzea lortu nahi dugu".

Tokian tokiko dantzak ikusgai

Sakanako herri askok dute ohitura zaharren bat. Baita Nafarroako beste txokotako herriek ere. Horien artean, tokian tokiko dantzak dira asko. Herri hainbatetan dantza-tzen diren dantza autoktonoen erakustaldia izanen da aurtengo dantzari eguneko protagonistetako bat. Nafarroako herri hainbatetako dantzak ikusteko aukera izanen da, "kasu askotan norbere herrian bakarrik dantzatzen diren dantza horiek ikusteko parada izanen da, merezi du hurbilean ditugun herrietako dantzak ezagutzeko, eta aukera paregabea da larunbatekoa". Izan ere, herri askotako dantzak urtean behin edo bitan baino ez dituzte dantzatzen, eta larunbatean aterako du herri bakoitzak berea taula gainera.

Nafarroako dantzariak bat eginda

Ekitaldi nagusia Irurtzuno plazan izanen da arratsaldeko zazpietan. Ordu erdi lehenago kalejira erraldoia egingen dute herrian barrena eta 850 dantzari bat eginen dute herriko plazan gero. Guztiek batera dantzatuko dute Agintariena, hurbildutako guztiak elkar agurtze aldera. Ondoren, talde askok une berean egingen dituzte pare bat dantza eta tartean erakustaldia egingen dute batzuek eta besteek. Amaiera ere, denek elkarrekin emanen diote ekitaldiari.

Ikusgarria izanen da horrenbeste dantzariren arteko koreografia, eta noski, are deigarriagoa izanen da ekitaldian dantza talde-etako musikariak izanen direlako.

Ez hori bakarrik, Irurtzuno abesbatzak eta fanfarreak ere jarriko diote doinua Nafarroako dantzari egunari.

Ia bi orduz ariko da Irurtzun dantzan. Baina ondoren ez dira geldirik izanen. Festa giroari eta jaiari emanen diote paso. Horretarako Kiki Bordatxo Iparraldetik hurbilduko da Irurtzuner eta Iruñetik folk taldea duen Mintxo kidearekin batera, musikaz jai giroa sortuko dute. Dantzariez aparte, dantzari egunera hurbildutako guztiak dantzaraztea da helburua.



Tokian tokiko dantzen ikuskizunak

Etxarri Aranatz (16:00-17:00)

Sakanako dantzak: Olazti, Altsasu, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Ihabar, Lakuntza (Elai-Alai) eta Uharte-Arakil (Galtzorratz).

Lekunberri (16:00-17:00)

Nafarroako dantzak: Arantza, Rocamador (Zangotza), Gure Txokoa (Bera), Mendiñike (Ablitas) eta Basakaitz (Iribas).

Irakurri 11 Galderak

Nafarroako Dantzari Egunez gehiago jakiteko ikus Guaixeko azken orriko **11 galdera**.

Egitaraua

- 16:00** Dantzariak Sakanako herrietan.
- 18:30** Irurtzunen kalejira.
- 19:00** Ekitaldi nagusia Foruen plazan.
- 20:00** Kiki Bordatxorekin Dantzaaldia.
- 00:30** Aibaiba disko jaia Gernika plazan.

Herrietako ikuskizunak (16:00)

- Olazti:** Oberena (Iruña) eta Larratz (Burlata).
- Altsasu:** Duguna (Iruña) eta Aurrera (Leitza).
- Lakuntza:** Ortzadar E. F. E. eta Elordi (Noain).
- Uharte Arakil:** Agoizko dantzariak, Iruña Taldea eta Txori Zuri (Berriozar).
- Hiriberri:** Amaiur, Marcilla eta Ardantzeta.
- Egiarreta:** Muthiko Alaiak (Iruña) eta Tafallako dantzariak.
- Izurdiaga:** Mikelats (Atarrabia), Harizti eta Baztango Dantzariak.

mador (Zangotza), Gure Txokoa (Bera), Mendiñike (Ablitas) eta Basakaitz (Iribas).

Irurtzun (16:00-17:30)

Nafarroako dantzak: Barde ribera (Fustiñana), Cortesko makil dantza, Garzarrak (Donibane Garaiz), Arrola (Baigorri), Makaia (Faltzes), Lantz (Dantza irakasten ariko dira), Ituren eta Baztan.

Herriak bat egin du egunarekin

Afaria 850 lagunek hartuko dute herriko kiroldogian. Horretarako Irurtzuno kolektibo eta taldeek bat egin dute laguntza eskaintzeko. "Guztien artean antolatuko dugu afaria", nabarmendu dute Orritzeko kideek. "Ezinezkoa izanen litzateke guregain hartzea guztia". Urte osoan izan dira Orritzeko hamar kide Dantzari eguna antolatzen. Larunbatean, 150 lagun ariko dira.

Sorpresak

Ezusteak eta sorpresak ere antolatu ditu taldeak larunbateko. Ekitaldi nagusia aho bete hortz gelditzeko modukoa izanen da, kontatu dutenaz aparte kontatu ez dutenagatik ere. Tradizioak, ohiturak eta kulturak egingen dute bat, ez bakarrik dantzak.

Dantzari eguna datuetan

850 dantzari baino gehiago elkartuko dira larunbatean Irurtzunen. Guztira, Nafarroa Garaiko eta Baxe Nafarroako 39 dantza talde ariko dira. Orritzek 20.000 euroko aurrekontua behar izan du Nafarroako Dantzari Eguna antolatzeko. Esperientzia ez da guztiz berria Orritzendako duela zazpi urte hartu baitzuen herrian Nafarroako Dantzari eguna. 2007. urte hartan dena dela, 500 dantzari elkartu ziren. Dantzari txiki eguna ere antolatu du Irurtzunek, 2009an.

Bitxikeriak

Sare sozialen oihartzuna egunetik egunera handiagoa den honetan, Nafarroako Dantzari egunak ez du zaharkitua gelditu nahi. Horregatik, Twitterren trending topic bilakatu nahi dute eguna. Horretarako dei berezia egin dute: goizeko ordu bietatik hiruretara #NDE2014 hastag-aerabilitasare sozialetan dantzari eguna lau haitzatarazabaltzea. Egun osoan zehar ere gainerako sare sozialetan egunaren berri ematea da xedea.



Aingeru Mikeo

astekoa

Amorruaren arrakala

Denon mintzagaia, erregetzaren oinordetza. Hauxe kalapita! Alde batean, aberats handiak, eliza katolikoa eta estatuko goi jerarkia, -politikariak eta hedabideak horien tresna izanik-, denak elkar hartuta, erregea goratuz eta txalotuz. Gehiegizko irabaziak eta pribilegioak. Ustelkeria eta lapurreta. Aforatzeak eta erantzukizun ezak. Barra libre! Gora erregea! Beste aldean, berriz, alderdi politiko berritzaileak, sindikatuak, eta, oro har, herritar mugimenduak, aldaketa eskatuz. Bost milioi langabetu, enpresak jota, zerbitzu publikoen gainbehera eta txirotzea; gainera, naziotasunak gaitzetsita, lege berri neofrankistak. Kaka zaharra! Gora errepublika!

Erregegaia, Leiren egindako agerraldian, 'Nire indarrak espainiarrak zerbitzatzeko erabiliko ditut' eta 'Komunitate bat osatzen dugu'. Berdin esaten zuen bere aitak, eta begira, bere agintaldi osoan 8 milioi euro kobratuta, 1.900 milioi euroko fortuna egin du (Forbes aldizkaria); errege bezala bizi izanda, gainera. Ejem! Bera sutuki txalotzen duten 15 familiek Ibex 35eko 25 enpresa dituzte. Bere egintza argitzen duen Eliza katolikoak 4.500 higiezin inmatriculatu ditu azken bost urteotan. Ikusten denez, komunitatean, gutxi batzuei bikain doakie, frankotar ondoko 'erregimen' horrekin. Erregetza, sinboloa, kasta horren pribilegioen sinboloa.

Hedabide batzuek Letiziaren estilismoaz eta sofistika-zioaz hitz egin dezagun nahiko dute, baina, hortxe daude datuak, eztabaida eta amorrua. Eta, Iruñean eta Lizarran, ireki da arrakala.

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Gehiegizko zoru klausulak!

Hipotekak Kaltetutako Sakana-kon Pertsonen Plataforman (HKP) oharatu gara gero eta jende gehiagok jakin nahi duela bere hipoteken zoru klausulak bidezkoak ote diren, eta, horregatik, zenbait kontu argitu nahi ditugu.

2013ko maiatzaren 9ko ebazpenean Auzitegi Gorenak interpretaziorako jurisprudenzia irizpide batzuk finkatu zituen, banku entitate guztien zoru klausula guztietan ezartzekoak. Ebazpen horren ondorioz, hipoteken zoru klausula gehienek ez dituzte baldintza horiek betetzen, eta, horregatik, auzitegietan deuseztatu daitezke, gardenak ez baitira.

Horrenbestez, informazio falta

nabarmena egon badago; interesen portaera desberdinen simulaziorik ez badago, hipoteka kontratatzean interes tasa behar bezala aurreikusitako; kostuei buruzko informazio argirik eta ulergarrikerik ez badago, beste kreditu modalitate batzuekin alderatzeko; zoru klausulak gehiegizkoak direla ebatzi da, nahiz eta zoru klausula sabai klausula batekin batera agertzen den, itxurazko kontraprestazio bat nola edo hala agertu nahirik. Gainera, Auzitegi Gorenak ebatzi du bankuek eta kutxek bere erakutsi behar dutela hipoteka kontratatzean bezeroari informazio argia eta zehazta eman ziotela.

Hipoteka berraztertunahi baduzu, erantzun honako galdera hauei:

Zoru klausula elementu nagusi gisa zehaztu da, sabai klausulari lotuta egon gabe?

Merkatuaren portaera aurreikusitako moduko simulazioak sartu dira?

Interesa aplikatzeko beste modalitate batzuk badaudela ohartarazi dute?

Datu kopuru ikaragarri batean sartuta idatzi da zoru klausula, barnean duen mezu garrantzitsua ezkutatzeko?

Zoru klausula duten hamar hipotekatatik bederatzik Auzitegi Gorenak azaldutako trikimai-

luren bat agertzen dute, eta zure hipoteka ez da salbuespena.

Zoru klausulek kaltetutako bat zarela iruditzen bazaizu, onena da bankuari edo kutxari alde aurretiko erreklamazio bat idatziz aurkeztea, Auzitegi Gorenak azaldutako argudioak oinarri hartuta, eta klausula hori kentzeko epe bat eskaintzea. Zure zoru klausula epearen barnean deuseztatzea onartzen ez badute, eraman kasua epaitegira, horrek kreditu entitatea behartu dezan. Era berean, fede gaiztoko jokar nabaria erakutsi dutenez, eskatu epaitegiari kreditu entitatea epaiketaren kostua ordaintzera kondenatzeko.

Irtenbide politiko baten ezean, bide judiziala da hipoteken zoru klausulak deuseztatze modu errealista bakarra.

Hipotekak Kaltetutako Plataforma

hara zer dien

Ligatzeko, begirada aldatu

Azken hilabeteen Joan Garrigaren hitzaldiak eta liburuak irakurtzeko aukera izan dut, eta gaurkoan nire artikulua idatzeko ideia batzuk eskaini dizkit.

Uda garaia dator, eta aholkularitza postaz eskaintzen dugun herrietan urtaro berezi batean gaudela nabaria da. Egun hauek postan mezu dezentz jasotzen ditugu eta hauek asko ligatzeko kontuekin datoz.

Udako eguraldiak, herriko festak eta denboralibre gehiagoez hitz egiteak ligatzeko gogoak pizten ditu, edo behintzat hori da gure ikusten duguna.

Neska eta mutilak ligatzeko gogoak adierazten digute, eta honen inguruan topatzen dituz-

ten zailtasunei aurre egiteko laguntza eskatzen dute.

Hasieran aipatu dudana bezala, laguntza horri erreparatzeko Joan Garrigari entzun diodan esaldi batekin hasiko naiz. Berak dioenez, askotan, ligatze kontuetan, bikotea topatu nahi dugunean, indarra bestearengan jartzen dugu, besteak ez zaizkigula hurbiltzen esaten dugu, edo ez gaituztela gustuko adierazten dugu. Joan Garrigaren ustetan hau ez da batere eraginkorra, hau da, ligatzea nahi izanez gero, edo bikotea topatu nahi badugu, galdera kontrakoa da, horrela bestearekin erreparatu beharrean galdera gure buruari egin behar diogu. Zer egin dezaket ligatzeko?

Zein da nire barruko jarrera ligatzeko garaian? Zer daukat nik bestearekin eskaintzeko?

Azkeneko jarrera honek beste leku batera eramaten gaitu, eta horrela gure gogoak gure ardurak bihurtzen dira, eta ondorioz gure begirada aldatu egiten da. Guregan ditugu harremanetan aritzeko giltzarriak eta hau askoz eraginkorragoa da.

Guk erakutsi behar dugu zer daukagun interesgarria eta baliagarria, gure garen honi, nahi dugun honi erreparatu diogunean munduari zera adierazten diogu, hemen gaudela eta hauek nahi dudana.

Beraz, gure gogoan kokatu eta behin desioa eta gogoak detekta-

tzen dugunean ezin dugu ahaztu honako jarrera hauek laguntzen dutela:

- Arropa aukeratzeko garaian, guapo/guapa sentitu behar dugu, gure gustukoak garela, daramaguna bat datorrela gurekin.

- Gustuko pertsona ikusterakoan, begiradak laguntzen dute. Begiradarekin neurria hartuz noski, besteak hor zaudela sentitu dezala agobiorik gabe.

- Berarekin elkarrizketa lortzen dugunean, gogoratu hitzari eustea ondo dagoela baina bestearekin espazioa emanez, entzuten gaituztela eta dioguna interesgarria dela sentitzea garrantzitsua baita.

Bukatzeko ez ahaztu guztiok dugula gure publikoa, eta horretara gure begirada eramatea lagungarria izaten da.

Olatz Berastegi

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egiten dira. Gutunaren izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunak. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Altsasun gertatu da!!!

Gurutze Arregi, Altsasuko feministak eta Bilgune feministak

Horrelako gertakariak guztion ardura direla adierazi nahi diogu jendarteguztiari gutun honen bidez.

Orain dela aste batzuk, San

Juan kaleko atzerritarren goxoki denda batean eraso matxista eta arrazistekin, gertakari desatseginak suertatu ziren.

Denda honetako jabeak, bineska eta mutil bat, errespetu falta eta biolentzia jasan zuten, 9-14 urte bitarteko gazte batzuen eskutik, dendaren itxiera eraginez.

Gauza hauek zergatik gertatzen diren galdetzen diogu gure buruari; puntualki gertutako gauza bat da? Hala hezkuntza oinarrian duen jarrera sexista eta arrazista baten aurrean gaude?

Gertakari honen ondorioz, dendako jabeek herria utzi behar izanek, ez du Altsasuko biztan-

leriaz ezer onik esaten, ezta gure haurrei ematen diegun hezkuntzaz ere. Denon ardura da!

Hau ikusita, hausnartzera gonbidatzen zaituztegu gertakari hauek berriro eman ez daitezen.

Elkarbizitza egoki bat emateko, ezinbestekoa da errespetua eta elkartasuna denon artean lantzea.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano

ZUZENTZAILEA: Garazi Gartzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SAKANA

Haur eskolendako diru-laguntza osoa eskatu dute udalek

Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu eta Altsasuko udalek beste 16rekin batera hitzarmen proposamen berria aurkeztu dute

Nafarroako 20 udalek 0-3 haur eskolak finantzatzeko hitzarmen proposamena aurkeztu zuten atzo Hezkuntza Departamentuan. Ibarreko lau udal dituen talde horri duela bi aste hasi zen zirriborroa lantzen eta ikasturte berrirako indarrean egotea nahi luke.

Bitartean, atzo alkateek Hezkuntza Departamentuari ikastur-

te berrirako hitzartutako diru-laguntza osoa ematea exijitu zuten. Izan ere, apirila hasieran jakinarazi zuten departamentuak diru-faltagatik hitz emandako diruaren %70 ordainduko zuela. Alkateak hasieratik diru-laguntza guztia jasotzea eskatu dute eta hori ikasturtea bukatu aurretik izatea. Diru-sarrerak eskasak eta finantza egoera latzean dauden udalen bizkar haiena ez den beste finantza karga bat jartzea da.



Txikiak haur eskolan. ARTXIBOA

UEMA egunera joateko deia

Bihar, larunbatean, Tolosan ospatuko da udalerrri euskaldunen eguna

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bere eguna ospatuko du bihar, larunbatean, Tolosan. "Eltzetik eta altzotik, euskaraz gara!" leloa izango du jaiak. Sakanan bi udal dira UEMA-ko kide, Etxarri Aranatz eta Arbizu, baina duten populazio euskalduna kontuan hartuta, Arbizuk, Ergoienak eta Urdiainek aukera izanen lukete ere bertan sartzeko. Etxarri Aranatz eta Arbizuko Udalek biharko Tolosako festara bertaratzeko deia egin dute, "alor guztietan euskaraz bizi dugula" aldarrikatzeko.

Egitaraua

11:30ean Kalejira: Tolosako Musika Banda, Erraldoiak, Udaberrri Dantza Taldea, Udalerrri Euskaldunetako ordezkariak eta herritarrekin.
12:30ean Ekitaldia plaza zaharrean. Adierazpen instituzionala, flash moba...
13:00etan Tolosa Kantari, Udalerrri Euskaldunetako Abesbatzek lagunduta.
14:30etan Bazkari herrikoia Alondegian.
18:00etan Irrien Lagunak, Ane eta piratak Alondegian.
 Kontzertuak Ibarren (Gazte Festak): Emon, Laket, Kometa.

*Goizean zehar, Euskal Herriko produktuen azoka eta egun osoan zehar haurrendako Puzgarriak eta 3x3 saskibalo txapelketa.

Lakuntza



Lakunzarrak puntua egiten igandeko urban knitting-erako. UTZITAKOIA

Aniztasunaren festa

Igandean, 17:30etik 20:00ak arte Pilekuben ondoko zuhaitzian

Txingurriye laguntza eta aisialdi taldeak Lakuntzako Elkartasun festa antolatu du, herriandagoen aniztasuna ospatzeko modua izanen da. Jatorri ezberdinetako lakunzarrak ongi pasatzeko egitaraua prestatu du, atze-

ra ere. Aurreko bi urteetan ospakizunak arrakasta izan du eta bide beretik segitu nahi du Txingurriyek.

Arratsalde pasa ederra antolatu dute Pilekuben: umeendako tailerrak, bat-bateko xake partidak, haurrek prestatutako munduko dantzen emanaldia, musika, ota-

mena eta lakuntzar berriek osatutako ikus-entzunezkoa ere. Txingurriyeren ekimenez urban knitting-a Sakanara iritsiko da. Hainbat emakume lakuntzar elkarrekin puntua egitera gelditu izan dira. Trikotatu dutena Pilekubeko ingurua edertzeko erabiliko dute, zuhaitzetan eta jarriz.

Iruzun



Dena ez zen arroz izan, paretetako loreetan mezuak idazteko aukera izan zen.

Arroz aleak bezala

Pertsona guztiak halakoak garelara eta dagokigun tokira moldatzen garelara, horixe ikusteko aukera izan zen larunbatean Iruztunen. Munduko Arrozak ekimenak Venezuelako Karibekoan, Afrika

iparraldeko Amazighen, Senegalgoen eta Sakanakoen platerak dastatzeko aukera eman zuten. Arroza, zapora ezberdinekin. Jendaurrean sukaldatu zuten guztiek eta erretezet galdetzeko aukera izan

zuten jakin mina zutenak. Baita akaberan dastatzeko ere.

Bideoa

www.guaixe.net/iruzun/1402466269877

Unamuno

Ondarria Industrialdea z/g
ALTSASU
948 562 829
Faxa: 948 563 002
unamuno@piensosunamuno.com

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO
ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINNTZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea
948 382 271 - Maburak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialleku 2 - ALTSASU

ziordiko udala

2.POLIGONOKO 932.LURZATIAREN XEHETASUN AZTERLANA HASIERAKO ONESPENA

Ziordiko Alkateak, 2014ko ekainaren 5an, hasiera batean onetsi zuten katastroko 2.poligonoko 932. lurzatiako Mikel Perkaz Gastesik aurkeztu duen xehetasun azterlana.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76.artikuluaren ezarritakoari jarraituz, espediente jendaurrean egonen da hogeit egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek azter dezaten eta egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Ziordian, 2014ko ekainaren 5ean.
Alkatea, Jesus M^a Arrese Galbete

ZIORDIKO UDALA

» Irurtzun

Erga azpian jai

Trinitatearen omenezko ospakizuna gaur hasi eta etzira arte luzatuko dira Irurtzunen. Ohi bezala, mendi gaineko ermita inguruko herrien bilgune bihurtuko da, atzera ere, igandean.

Egitaraua

»» Garagarriak 13,

ostirala

18:30ean Musika eskolaren kontzertua plazan.
23:00etan Kontzertuak Larrazpin.

»» Garagarriak 14,

larunbata

9:00etan XXII. Irurtzungo Pilota Txapelketaren finalak. 6 maila.
10:00etan Ergako Trinitaterako herri lasterketa, kronoigoera. Nafarroako Dantzari Eguna
16:00etatik 17:30era Bertako dantzak.
18:30ean Kalejira 40 dantza taldearekin.
19:00etatik 20:00etara Ekitaldi nagusia.
20:00etatik 22:30era Dantzaldia Kiki Bordaxorekin.
00:30etik aurrera Gaupasa Aibaiba diskojaiarekin, Gernika plazan.
21:00etan Larrazpitek VII, Larrazpi elkartean.

»» Garagarriak 15,

igandea

11:00etan Erromeria Ergako Trinitatean. Mezak eta otamena.
17:30etik 20:30era Katzarreando. Betiko jokoak familiartean gozatzeko, plazan.

» Lizarraga

San Adrianak, erromeri, zortziko eta festa egunak

Bihar hasiko dira Lizarragako festak, San Adriango erromeriarekin, eta astelehenean despidituko dira

Ja konturatu gabe, urtea pasa da eta Lizarragako San Adrian festen bez-



peran gaude. Bihar, larunbatean, hasikodirafestak eta, ohitura denez, mendira, San Adrian basilizara, igoko dira Lizarragako familiak. Bazkaria eta dantzaldia eta gero, herri-

tik jaitsi eta zortzikoaren txanda izango da. Astelehenera bitartean, auzateak, dantzaldiak, bazkari-afariak eta haurrendako puzgarriak ez dira faltako. Ongi pasa festetan!

Egitaraua

»» Garagarriak 14, larunbata

10:30ean Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.
13:00etan Meza mendian.
17:30ean Dantzaldia Amalur taldearekin.
18:30ean Menditik jaitsiera.
19:30ean Alkatearen etxean auzatea
20:00etan Lizarragako Zortziko herriko plazan.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Dantzaldia.
Egun guztian zehar Amalur musika taldea giroa animatzen.

»» Garagarriak 15, igandea

11:30tan Amalur taldearekin kalejira.
13:15etan Herri Meza.

14:00etan Amalur taldearekin kalejira.

18:00etan Bordetxe abere zirkoa.

19:00etan Sardinada eta txistorrada herriko plazan.

20:00etan Musika emanaldia. Goizez frontoian haurrentzako puzgarriak.

»» Garagarriak 16, astelehena

11:00etan Gosaria herriko plazan.

14:30ean Kalderete kuadriletan.

17:30etan frontoian haurrentzako puzgarriak.

20:00etan Joselu Anaia taldearekin dantzaldia.

20:30etan Herri afaria ohitura den bezala herriko plazan.

23:30 / 03:00 Gaupasa Joselu Anaiekin. Goiz eta arratsalde frontoian haurrentzako puzgarriak.

» Olatzagutia

Gaztetxearen zirko flamenkoa bihar

Poteoa, bazkari herrikoa, erromeria eta beste antolatutako dituzte

Olatziko Gazte Asanbladak jai egun berezia antolatu du bihar. Definitzea zaila den festa izanen da, zirko flamenko moduan izendatu dai-

tekeena. Izan ere, sevillanaz, korobesez, flamenkoz, toreroz eta beste mozorrotzeko gonbitea egin diote jendeari. 13:00etan elkartu eta poteon ibiliko dira herritik, segidan gaztetxe aurrean bazkari herri-

koian biltzeko. Arratsaldean jarraituko du festak, 16:00etan Bordetxe zirkoarekin. La Cigarra txarangak alaituko du ekitaldia. Bukatzeko, 20:00etan hasiko da Zesuma taldearen erromeria, gaztetxean.

» Etxarri Aranatz

Asteburua festaz inguratuta

Etxarriarrek patrioiaren eguna, San Kiriko, ospatuko dute gaur. Ohi denez, eguerdiko meza despiditu eta gero eliza kanpoko aldetik soroak bedeinkatu eta uzta ona emateko eskaria berriro da. Arratsaldean, Andra Mari ermitaren bueltan elkartuko dira koadrilak merendatzera. Tripako zuloa berdindu ondoren, kintoek dantzakia dantzatzeko dute eta kalejira plaza-

zara jaitsiko dira etxarriar asko. Han, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 3:00etara, Laiotzek dantza doinuak jarriko ditu.

Astelehenean, berriz, etxarriarrek beheko basoan egun pasa egingo dute, San Adrian ospatzeko. Udala eta txistulariak 9:00etan abiatuko dira. Haiek iristen direnean, 10:30ak aldera, fritada (haragi gisatua eta zopa) izanen da denendako.

Jatekoaren ondoren kupelen ondoren geldituko dira batzuk eta bazkariako prestaketak egiten hasi dira besteak. Eguerdian meza izanen da. Bazkaldu eta gero etxarriarrek 18:00ak aldera mugitzen hasiko dira, txistularien doinura. Dantzakia dantzatu eta Gernikako Arbolabestu ondoren, herrirako bidea hartuko dute etxarriarrek, gauerdiko iristeko. Bitartean, plazan

Sukar taldearekin dantzaldia izanen da, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 3:00etara.

Egun seinalatu horretan norekin bazkaldu ez duten herritarrek bere mahaian bazkaltzeko aukera eskaini zuen udalak, 15 pertsonen muga jarritz. Bi izan dira eskaintzaz baliatu direnak eta ordaindu ondoren udalaren mahaian bazkalduko dute astelehenean.

» Altsasu

Udarako deskontuak

Zure Denda txartelarekin %10eko deskontua egingen dute 13 dendek agorriera arte

Altsasuko Dendarien Elkarteko (ADE) 13 dendek garagarrietik agorriera arte, edo aurrekontua bukatu bitartean, %10eko deskontua egingen dute edozein erosketa egitean. Deskontua eskuratzeko Zure Denda txartela erabili behar da. Kanpaina horren aurrekontuaren erdia ADEk jartzen du eta, gainontzekoa, Nafarroako Rural Kutxak.

ADEtik azaldu dutenez, Zure Denda txartela bezeroak fidelizatzeke tresna bihurtu nahi dute. Txartelak egiteko aukera eskaintzen dute (dendetan edo Rural Kutxan) eta zenbat eta gehiago egin denda eskaintza zabalagoa izanen

dela nabarmendu dute. Aldi berean, txartel horren bidez kanpaina berriak egingen dituztela aurreratu dute. Kanpaina parte hartzen duten dendak dira: Arkatz, Optika Sakana, Sare, Iker Kirolak, ML, La Cigüña, Izara, Larka, Relojeria Norte, Lezea, Ekin, Txikitxo eta Xagu.

Ezaugarriak

Zure denda txartela doako Visa kreditu txartela da. Dendetan hiru hileko epean ordaintzeko aukera ematen du, interesik gabe. Bezeroak, gainera, ADEk antolatutako bale, zozketa, sari, zuzeneko deskontu eta bestelakoetan parte hartuko du. Txartela norberaren kontu korrantearekin lotzen da eta ez du zergatik Rural

Sarituak

Maiatza hasieran Elena Verak elkarteari egindako irudi berria aurkeztearekin batera, kanpaina martxan jarri zuen ADEk: kartel batean zenbat logotipo zuzen zeuden asmatu behar zen. 590 logotipo zuzen zeuden. Gehien hurbildu zena eta Mediterraneoko barnako itsas-bidaia eskuratu zuena Mercedes Debén izan zen. Bestalde, Maite Goikoetxeak Donostiarako asteburuko ihesaldia irabazi zuen.

Kutxakoa izan beharrik. Mundu guztian erosketak egiteko bali-

garria da eta doako aseguruak ditu.

» Bakaiku/ Iturmendi

Trinitate ospakizuna Santa Marinan

Bakaikuarrak eta iturmendiarrak domekan Santa Marinara igoko dira. Eguerdian meza izanen da ermitan. Hura despiditzean auzatea izanen da elkartutako guztiendako eta Edor Zubeldiak dantzarako doinuak jarriko dituzte. Familia eta koadrilak bazkaltzera eseriko dira 14:30ean. Handik jasota, 17:00etan, Santa Marinako plazan dantzaldia izanen da. Ibarerako bidea 18:30ean hartuko dute. Festa aurten Bakaikuk antolatzen duenez, han bukatuko da ospakizuna. 20:00etatik 23:00etara Dj Sergeirekin dantzaldia izanen da.

» Olatzagutia

Musika eskolan izen ematea zabalik

Udal Musika Eskolak jakinarazi du ikasle berriendako matrikula hurrengo bi hilabeteetan egin beharko dela. Garilean eta agorriean Gartzia Ximenez plazako 1. zenbakitik pasa edo 948 562 446ra hots egin daiteke izen emateko edo informazioa jasotzeko. Udal Musika Eskolaren eskaintza akademikoa hauxe da: pianoa, saxofoia, bateria, gitarra klasiko eta elektrikoa, akordeoia, trikitixa, instrumentu taldea eta musika hizkuntza. Bestalde, ikasturtea despiditzeko ikasleen entzunaldia izanen da asteartean, 17:30ean, kultur etxean.

SAKANA**Aralarko santutegiko mezak udako ordutegian**

Helduden astelehenetik aurrera, Aralarko santutegiko elizkizunen ordutegia aldatu egingen da. Astelehenetik irailaren 29ra arte, egunero, 12:30ean meza izanen da Aralarko santutegian. Hala jakinarazi du Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak.

» Irurtzun

ITBren saio berria

Martinak eta Lorek, atzera ere, Irurtzun Telebistaren emanaldi berria aurkeztu dute, www.irurtzuneuskaraz.com web orriaren ikus daitekeena. Bekario bilaketan segitzen dute. Bestalde, frontenis eta goxua txapelketen finalen eta Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpenaren berri ematen dute. Irurtzundarrak munduan atala ere ikusgai da atal berrian. Guztia umorez lagunduta, edo...

SAKANA**Errepublikako eske**

Jendetzak parte hartu zuen larunbatean Iruñean monarkiaren kontra eta errepublikaren alde egin zen manifestazioan. Sakandar ugari ere parte hartu zuten. Baita UN-NEB, EAJ-PNV, Aralar eta Sortuko kideak ere.

SAKANA

Idiazabal eta Altsasu artean, Etxegarate mendatea

Toki izen hori onartu du Euskaltzaindiak. Gaztelaniaz tz soinu ezin idatzi eta ch erabili zuten, toponimoan aldaketa eraginez

Euskaltzaindiako Onomastika batzordea hilean behin edo Olatzagutiko kultur etxean elkartzenda. Apirileko bilkuran erabaki zuten Goierri eta Burunda artean dagoen mendatearen izen ofiziala Etxe-

garate dela. Idiazabalgo Udalaren eskaerari erantzunez eta Antonio Berasategi Lardizabalen txostena aztertu ondoren hartu zen erabakia.

Portuari Etxegarate izena ematerakoan Onomastika batzordeak kontuan izan ditu idatzizko testigantzak eta inguruko euskaldunen ebakera (Idiazabal, Zegama eta



Kamioia Etxegarateko gainean.

Ataun). Azken horiek Etxeate edo Etxeate erabiltzen dute portuaz ari direnean. Dokumentuak ere arakatu dituzte toponimoa nola jaso izan den ikusteko.

Aldaketa nabarmenena XIX. mendean portuan errepidea zabaltean eta hura ezaguna bihurtzean gertatu zen. Ordura arte euskaraz Etxegarate zena gaztelaniaz idatzi behar eta -tz soinu hainbat modutara eman zuten: tc, é, ch, c, ts edo z. Nahasmen horretan ch nagusitu zen, toponimoaren oinarrian etxe izena zegoelakoan edo. Gerora, ch-a tx-gatik ordezkatu zen Etxegarate geldituz.

Agirietan		
Urtea	Aipua	Gaur egunera ekarrita
1.208	Eicagaratea	Eitzagaratea
1.406	Yçagarate	Itzagarate
1.409	Eyçagarate	Eitzagarate
XVII. mendea	Yçagarate / Eyçagarate	Itzagarate / Eitzagarate
XVIII. mendea	Yçagarate / Eyçagarate / Ezegarate	Itzagarate / Eitzagarate / Etxegarate
XIX. mendea	Ecegarate / Echeagarate / Ezegarate	Etxegarate

Uharte Arakil

Bi artikulu moldatuta, euskara ordenantza indarrean



Uharte Arakilgo Udalaren bilkura. ARTXIBOA

PPk 10 artikulu salatu zituen eta epaitegiak biren erredakzioaren anbiguotasuna zuzentzea eskatu du

Uharte Arakilgo Udalak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zehaztu zituen ordenantza baten bidez. PPK ordenantzako 25 artikuluetatik 10en kontrako gora jotzeko helegitea aurkeztu zuen, Euskararen Legearen eta gaztelaniaren kontra egiten zelakoan.

Nafarroako 2. Administrazio Epaitegiak maiatzaren 21ean emandako epaian PPrene helegitearen zatirik handiena atzera botatu eta ordenantzako bi artikulu baliogabetu ditu. Biak ere erredakzioaren anbiguotasunak legea ez betetzea ekarri dezakeelako. Uharteko Arakilgo Udalak bi aukera ditu: erredakzioa zuzendu edo orde-

nantza baliogabetutako artikulua kenduta onartzea. Zer egin aztertzen ari dira.

Edo bategatik

Uharteko Udalak 8. artikuluan onartuzuen "euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoetako udalak euskaraz edo hizkuntza bietan bidalikozkie agiriak". 12. artikuluan, berriz, jasoa zuen herritarrei ematen zaizkien inprimakiak euskaraz edo hizkuntza bietan egonen direla. Epaileak dio edo hitzaren erabilera aukera bat ala bestea eman deza keela eta euskara hutsean egiten bada hizkuntza aukeratzeko eskubidearen kontra egiten dela. Horregatik, baliogabetu ditu artikulua.

SAKANA



Euskara sustatzeko jarduerak laguntzeko deialdia

Bihar bukatzen da eskabideak aurkezteko epea

Sakanako Mankomunitateak ibarreko euskalgintzari zuzendutako diru-laguntza deialdia egin du. 5.000 euro bideratu ditu euskalgintzako taldeek antolatutako euskara sustatzeko jarduerak diruz laguntzeko. Beti ere, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea edota euskararekiko jarrera hobetzea helburu duten egitasmoak lagunduko ditu Mank-ek.

Deialditik kanpo geldituko dira euskaraz izanik ere hizkuntzaren erabilera sustatzea helburu ez duten ekitaldiak. Baita Mank-en beste edozein esparrutik laguntza jasoko dutenak ere. Haurrendako eta gazteendako aisialdi jarduerak ere salbuetsiak daude.

UEUn matrikulatzen direnendako laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) aurten antolatzen dituen ikastaroetan izena ematen duten sakandarrak diru-laguntza eskatzeko aukera izanen dute. Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren laguntza hori matrikula, egoitza eta kilometraje kontzeptuagatik izanen

da. Baina azken biak eskatzeko aukera ikasleek eta langabeek izanen dute soilik. 500 euroko diru-poltsa aurreikusi du Mank-ek deialdi horretarako. Interesatuak euren eskaerak abenduaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dituzte Mank-en Lakuntzako egoitzan.

Mank-ek euskarazko errotulazioa diruz lagunduko du

Sakanako Mankomunitatearen errotuluak euskaraz jartzen dituzten establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarteetako diru-laguntza emanen die, beti ere, edoitzen errotulu, tolo edo ibilgailu komertzialeko errotula-

ziorako izanen da. 1.000 euroko poltsa du horretarako Mank-ek. Euskaraz hutsezko errotuluengatik Mank-ek %50 ordainduko du, elebitan bada, berriz, %20. Interesatuak eskaerak abenduaren 2ra arte aurkeztu ditzakete.

Arbizu/Etxarri Aranatz

Berria egunkaria doan etxean



Berria egunkariaren azken kanpainako irudia.

Eguneroko prentsa euskaraz irakurtzeko kanpainan izena emateko epea etzi bukatzen da

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) euskarazko hedabideen zabalkundearen eragiteko eta Berria egunkari berritua ezagutze- ra emateko eta euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina martxan jarri du. Izena ematen duten arbizuarrek eta etxarriarrek 15 eguneko Berria egunkaria dohainik jasotzeko aukera izanen dute. UEMAtik adierazi dutenez, "gaur

Izena emateko

Larunbatera arte eman daiteke izena 943 304 345 telefonoan edo harpidetza@berria.info e-posta helbidean; izen-abizenak, telefonoa eta herria zein diren jakinarazi behar da.

egungo gizarte komunikatuen euskarazko hedabideek hizkuntza normalizazio prozesuan duten garrantzia erabatekoa da".

SAKANA

PPk Mank-en euskararendako diru-laguntza deialdiak kritikatu ditu

Hilaren 9an Nafarroako Aldizkari Ofizialak Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egingandako zazpi diru-laguntza deialdiaren berri eman zuen: euskara ikasten ari diren helduendako 25.000 euro, Sakanako euskaltegiendako 25.000 euro, euskarazko hedabideendako 80.000 euro, errotuluak euskaraz jartzeko 1.000 euro, Sakanako euskalgintza taldeendako 5.000

euro, UEUren ikastaroetara joaten direnendako 500 euro eta euskarazko udalekuan joaten diren haurrendako 5.000 euro.

Deialdi horietara Mank-ek 141.500 euro bideratu ditu. Euskara Zerbitzuak bere jardunari behar bezala eutsi ahal izateko udalek euren ekarpena han 15.000 eurotan handitu dute, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak kendu dituelako.

Sakanako PPKo buru Juan Antonio Extremerak deialdia ikusi eta Mank-i "bere lehentasunak argitzeko" eskatu dio. Diru hori gizarte laguntzetara edo ekintzailtzera sustatzera bideratzea hobe litzatekeela ziurtatu du Extremerak, "haietako zati handi bat Sakanako Plan Estrategikorako bideratu liteke, dirurik gabe ezin delako neurririk hartu".

Birziklatze tasa handitzeko proposamena aurkeztu dute udaleko lau taldek

Giltza edo txipdun 5. edukiontzia ezartzea eta borondatezko konpostajea sustatzea proposatzen dute NaBai 2011k, PSNk, IUN-NEBk eta UPNk

Lau taldeek hilaren 2an udaletxe-ko erregistroan aurkeztu zuten proposamena. Altsasun hondakin birziklatze tasa handitzea lortzeko neurri sorta proposatu dute. Europar Batasunak ezarria du 2020. urterako hondakin %50 birziklatu behar dela. Altsasun gauegun %24 birziklatzen da eta udalean gehiengo dute lau taldeek euren proposamenarekin 2016ko akaberara %65 birziklatzera iritsi nahi dute.

Lau taldeetako ordezkariak gogora ekarri zuten 2012ko lastailan udalak hartutako mozioa, zeinetan Mank-i eskatu zitzaion: Altsasun atez atekoa ez ezartzeko, hondakin bilketa sistemen inguruko informazio aldia zabaltzeko eta ondoren galdeketa egiteko. Azaldu dutenez, ordutik makina bat aldiz gaztigatu dute udala akor-

dio horren inguruan, hondakin kudeaketaren inguruan akordio- ren bat lortzeko.

Abenduan alkatetzako taldearen, NaBai2011 eta IUN-NEBen arteko bilera izan zen. "Akordioa lortzeko jarrera ikusi genuen. Bileran gehiago eta gaian sakontzeko nahia azaldu genuen, baina alkatetzan luzamendutan aritu ziren".

Proposamena

Lau alderdiek eskatzen duten lehen da urte erdiko iraupena duen informazio kanpaina bat martxan jartzea Mank-ek kontratatutako langileekin. Tarte horretan haien egitekoa litzateke: borondatezko auto- eta auzo-konposta sustatzea; denda, taberna eta altsasuarren artean hondakinak murriztu eta berrerabiltzeko kanpainak sustatzea; egun dauden edukiontzietara eta materia organikoa jasotzeko marroirazer bota behar den jendeari jakinaraztea; hitzaldiak, esku-orriak, edukiontzitan jarritako kartelak eta bestelako prestakuntza eta informazio ematea; edukiontzien ondoan egotea herritarrei egoki nola birziklatzen den



NaBai2011, PSN, IUN-NEB eta UPNko zinegotziak proposamenaren aurkezpenean.

erakusteko eta, azkenik, konpostagailuen arduradunei laguntza egokia ematea.

Materia organikoa konpostatzen ez dutenendako giltza edo txipa duen edukiontzi marroia jartzea eskatu dute udal lau taldeek (berdea errefusarako geldituko litzateke). Auzo-konpostean aritzeko herritarrek izena ematea

proposatu dute eta haien artean arduradun bat izendatuko litzateke. Mank-ek haiei beharrezko laguntza emanen liekeela ziurtatu beharko luke. Bestalde, udalaren eskumena litzateke auzo-konpostagailua jartzeko baldintzak eta kokapena zehaztea.

Proposamenean Mank eta udalaren arteko bilketa ordutegia

zehaztea jasotzen da, "herritarrei alferrikako molestiak eta usainik ez eragiteko". Akordioa indarrean den bitartean Mank-ek hiru hilero birziklatze tasaren berri ematea ere jaso da proposamenen. Bi urte eta erdi pasata %65eko birziklatze tasara iristen ez bada egoki jotzen diren neurriak hartzea proposatzen dute lau taldeek.



Mank hondakin gaian elkarrizketarako prest azaldu da

"Egunero sortzen ditugulako" hiri hondakin arazoari konponbidea sakandar guztiek eman behar diotela uste du ibarreko erakundeak

Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Mugaruzak elkarrizketarako deia egin ez erantzun dio Altsasuko hondakin kudeaketaz NaBaik, PSNk, IUNk eta UPNk aurkeztutako proposamenari. "Nafarroan hondakin kudeaketan Sakana erreferente bat da eta altsasuarren inplikazio positiboak erreferentzialtasuna handitzeko baliokoa du. Horretarako, alde guztien konpromisoa behar da: Mank-ena, udalarena eta herritarrena".

Mank-eko lehendakariaren "harriduraz" hartu zuten prentsaurrekoa "NaBai eta IU Altsasuko alkatetzako taldearekin gaitako bilketa ereduaren ezarpen progresiboaz hizketan ari zirelako eta zeharka horren berrigenuen eta Mank-etik ekarpen teknikoak egin ditugu". Udalek Mank-i hon-



Adolfo Araiz eta Aitor Karasatorre, hondakin bilketa sistemen ezarpenaren balorazioa egin zutenean.

dakin bilketa eskumena pasa diotela ere gogorarazi du.

Proposamenaz

Karasatorrek nabarmendu du hondakin bilketa sistema orain dela bi urte aldatzen hasi zirenetik ez direla udal baten gehiengoak adierazitakoaren kontra joan. "Horregatik, Irurtzunen eta Altsa-

sun atez atekoaren ezarpena geldiarazi zen eta bilketa tasak hobetzeko udalekin akordioetara iristen ahalegindu gara".

Mank-etik azaldu dutenez, "udalak gaitzaren inguruan egoki jotzen dituen akordioak onartu ondoren, bi erakundeen arteko ordezkartzen arteko elkarrizketa etorriko beharko litzateke. Aukeratutako

sistema aurrera eramateko bideak zehaztu beharko dira elkarrizketa horietan". Horien artean leudeke: arazo teknikoak, ekonomia, ezarpen egutegia, konpostagailuen kokapena, edukiontzi berriak nola behar duten, zati organikoarekin zer egin eta beste.

Mank-eko presidentetzaren ustez, aurkeztu duten proposame-

naren birziklatze tasaren helburua ez da anbizio handikoa. Gabezia bat ere sumatu diote: "2016ko akaberan ezarritako helburua ez bada lortzen zer? Altsasuko alkatetzako taldearekin izandako elkarrizketetan NaBaik eta IUk esan dutenez, helburua beteko ez balitz atez ateko sistemen ezarpena babestuko lukete". Aurkeztutako proposamenen halakorik ez dagoenez, asmo horri eusten dioten galdetu dute Mank-etik. "Ezartzen den sistemak %65eko birziklatze tasa lortzen ez badu, gehiago birziklatzen dela erakutsi duen sistema bat ezarri beharko litzatekeela uste dugu".

Presidenteak bere erantzunen berretsi du hondakin gaikako bilketa maila handiak bermatzen dituen sistema atez atekoa dela. Ezarri den ibarreko herriak Altsasu baino txikiagoak badira ere, presidenteak gogora ekarri du Gipuzkoan eta Katalunian Altsasuren antzeko hirigintza eta populazio bereko edo handiagoko herrietan atez ateko sistema martxan dela eta hilabete gutxitan %80ko birziklatze tasa lortu dute, "herritarren ahaleginari eta sistemen berezitasunei esker".



Elkar hartuta



GURE ESKU DAGO >> Elkar hartuta





*Eskerrik asko
Etxarrira hurbildu
zineten guztiei!!!*

Etxarri Aranazko tabernak

Derry - Etxarriko Kanpina - Iraize - Iratxo
- Iturri eder - Larraza - Leku Ona - Xapatero



Milesker parte hartu duzuen guztioi
Gakanan ere
gure esku dago!



Arbizun ere
Gure Esku Dago,
milester!

Arbizuko tabernak:
Arrauts - Baxerri - Ekokanpina - Izar Ondo - Karrika - Kiroldegiko Taberna - Olatzea



Irurtzungo tabernak: La Tahona

*IRURTZUNDIK eta
UHARTE ARAKILDIK
eskerrik asko!*

**Uharte Arakilgo tabernak:
Anaiak - Mendikoa**



*Sakana parapente eguneko
laguntzaile eta
antolatzaile guztiei
mila esker!*

BALZA
PARAPENTE TALDEA

**Lakuntzatik
eskerrik asko!**

**Lakuntzako tabernak:
Lagun Artea - Lakuntzako Ostaturia - Ogi Berri - Sorgiñak**



GURE ESKU DAGO >> Elkar hartuta



» Altsasu



Asier Urkia Ijurra fisioterapeuta hasi da kiroldegian lanean.

Fisioterapia zerbitzua kiroldegian

Bazkideak eta bazkide ez direnak erabil dezakete astegunetan, 9:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara

Pasa den astetik Zelandi kiroldegia bere eskaintza fisioterapia zerbitzuarekin zabaldu du. Asier Urkia Ijurra fisioterapeuta da zerbitzuaz arduratzen dena. Urkiak Viceko unibertsitatean ikasizuen fisioterapia eta egun Santandereen kirolfisioterapiako masterra ikasten ari da.

Urkiak esan digunez, dagoeneko bere eskuetatik pasa dira zenbait pertsona. Prebentzioan eta medikalizazioa eragozteko kontrakturen kontrako masajea, lesioen prebentzioarako masajeak, hainbat gorputz ataletatik kargak kentzeko masajeak eta beste ematea aurreikusten du. 45 minutuko saioak egingen ditu pertsona bakoitzarekin.

Zelandi kiroldegiko bazkide dire-

nek 25 euro ordaindu beharko dituzte, ez direnek, berriz, 40. Guztiak kiroldegiko ezkaratzako ezkeraldeen prest duengelan hartuko ditu. Beti ere, alde aurretik izena eman badute. Horretarako Zelandi kiroldegiko harrerara hots egin beharko da: 948 562 786.

Eskaintza

Atabo udal enpresa publikoak Zelandi kiroldegiko bazkide egin nahi dutenendako eskaintza egin du. Aurretik bazkide den batekin joaten bada matrikula kuota dohainik izanen dute. Hilaren 20ra arte bazkide egiten direnek 75 euroko matrikula aurrez-tuko dute. Zelandi kiroldegiko azpiegiturak erabiltzeko aukerarekin batera udako sasoiaren Dantzalekuko igerilekura dohain sartuko dira eta deskontua izanen dute fisioterapia zerbitzuan.

» Arakil/Irurtzun

Departamentuak Biurdanan duen plangintza falta salatu dute

Institutuko zuzendaritzak eta Guraso Elkar-teek espazio faltaren aurrean adabakiak beharrez konponbideak eskatu dituzte

Arakilgo eta Irurtzango ikasleek DBHko euskarazko ikasketak Iruñeko Biurdana institutuan egiten dituzte. Hara ikasleak eramaten dituzten eskoletako guraso elkar-teek luze daramate salatzen Biurdanan espazio falta dagoela eta Iruñea iparraldean beste ikastetxe bat egiteko eskatzen dute. Irurtzunen DBH emateko azpiegiturak egitea ere eskatu dituzte, baina Hezkuntza Departamentuak ezezkoarekin erantzun du behin eta berriz.

Ikasturte honetan 590 ikasle izan dira eta hurrengoan 620 izanen dira. Eta aurreikuspena ikasleria handitzea da. Espazio falta hori nabarmena izanda, departamentuak erabaki du batxilergoko 145 ikasleak aldamenean dagoen Donibane eraikinean kokatzea. Hasie-



Iruñea iparraldean institutu berria eskatzeko elkarretaratzea. ARTXIBOA

rako 420 metro karratu beharrez 300 izanen dituzte. Hara leku aldatu behar zituzten gela eta azpiegiturak, beraz, toki txikiagoan kokatu beharko dituzte.

Gorputz heziketa

Biurdanan gimnasio bat eta estali gabeko kirol pista dute. Ikastur-

te berrian gorputz heziketako 33 ordu eman ditzakete gimnasioan. Gainontzeko 23endako ez dago espazio itxirik. Departamentuak pista estali nahi ez duenez, Anaitasuna klubarekin hitzarmena sinatu zen haien azpiegiturak erabiltzeko. Joan-etorriengatik eskola orduak murrizten dira.

SAKANA

Ibarreko bi ikastetxe Nafarroako Confint topaketan

Nazioarteko gazteen konferentzia da Confinta eta haien artean ingurumen konpromisoa sustatzeko helburuz bost kontinenteetan aurrera eramaten ari diren dinamika bat da.

Prozesu horretan parte hartzen ari diren ikastetxeek udaberri hasieran ikastetxean nor bere topaketak egin zituzten. Nafarroako Confint topaketa, berriz, Iruñean egin zen hilaren 8an. Parte hartu zuten bost ikastetxeetatik bi Altsasukoak ziren: Sagrado Corazon eta Aralarko Mikel Donea. Bi ikastetxeek ere ingurumen integrazioan eskarmentua dute. Hainbat gai ikertu eta aztertu dituzte eta hobetzeko neurriak proposatu eta egin dituzte.

Sakanatik

Sagrado Corazon ikastetxea Maialen Aramendiak, Imanol Loboketa Xabier Ruiz de Arbulok ordezkatu zuten. Besteak beste argindarra sortzeko bizikleten, baratze bertikalaren eta ikastetxera bizi-



Nafarroako Confint topaketan lan taldeak egin zituzten ikasleak. UTZITAKOIA

kletaz joateko bide berdea martxa jartzeari buruzko azalpenak eman zituzten. Aurreneko bien ereduak Iruñera eraman zituzten.

Aralarko Mikel Donea institutua, berriz, Maite Martinezek, Imanol San Migelek eta Xabier Diazek ordezkatu zuten. Ikastetxearen inguruan hondakinak murrizteko kanpainaz, zuhaitzen landaketaz, uraren kalitatea eta aurrezpenari

buruzko ikerketa, mugikortasuna eta birziklatzea izan zuten hizpide.

Segida

Estatuko erkidegoetako ikastetxe-etako ordezkariak azaroaren 12tik 15era Bartzelonan elkartuko dira. Gaur jakinen da Nafarroatik zein joanen den. Han 2015eko udaberriaren Bruselan egingen den topaketarako ordezkariak aukeratuko dira.

SAKANA

Selektibitatean, aurrera

Ibarreko 49 ikasleek pasa den astean egin zituzten unibertsitate sartzeko probak eta dagoeneko notak eskutan dituzte. Aralarko Mikel Donea institutuko Dereduko 39 ikasleetatik 37k gainditu dute selektibitatea, baita A eredu-ko 4 ikasleek ere. Iruñeko Biurdana ikastetxetik probara joandako 7 ikasle arakildar eta irurtzundar guztiek gainditu dute selektibitatea.



» Etxarri Aranatz

Musika eskolako matrikula zabaltzeaz

Asteartean zabalduko Etxarri Aranatzko Udako Musika Eskolan izena emateko epea eta 30era arte egonen da zabalik. Izen ematea udaleko bulegoan egingen da. Han eta www.etxarriaranatz.com web orrian informazioa jaso daiteke. Musika eskolaren eskaintza hauxe da: musika lengoia, pianoa, txistua, gitarra, biolina, zeharkako flauta, akordeoia, kantua, saxofoia, tronpetak, tronboia, bonbardinoak eta bateriak. Informazio gehiago: udalaren web orrian, edo udal bulegoetan.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

NABIGATU ETA HITZ EGIN
ETXETIK ETA MUGIKORRETIK

941519151

30 Ctik hasita+beza
36,3 € BEZA barne

ARBIZU
ETXARRI-ARANATZ
ERGOIENA

TELEFONOA INTERNET A ETXEAN MUGIKORREAN

net
izartel

Mendi lasterketa

Sakandarrak Lakuntza-Aralar lasterketan
(24,7 km):

1.	Aritz Egea	1:58:05
21.	Beñat Katarain	2:13:32
24.	Jose Javier Maiza	2:16:24
25.	Mikel Berastegi	2:16:31
26.	Aritz Ganboa	2:16:33
32.	Fidel Jimenez	2:18:53
39.	Mikel Satrustegi	2:22:54
56.	Aritz Pellejero	2:28:05
58.	Andoni Azanza	2:28:50
64.	Ruben Moral	2:30:49
73.	Mikel Iriarte	2:35:02
79.	Santi Galarza	2:37:22
86.	Iraitz Senar	2:40:05
87.	Luis Flores	2:40:05
91.	Fran Araña	2:41:56
92.	Axular Olaberria	2:42:04
93.	Alberto Mtz. de Lagran	2:42:05
94.	Andoni Aiestaran	2:42:08
104.	Asier Pellejero	2:46:55
106.	Carlos Gerendiain	2:47:46
107.	Maite Beregaña	2:47:46
109.	Juan Martin Tirapu Goñi	2:48:29
110.	Juan Martin Tirapu Corera	2:48:30
115.	Francisco Jose Juango	2:50:05
128.	Izaskun Beunza	2:56:17
133.	Mikel Munarritz	2:58:26
134.	Olatz Eslaba	2:58:29
142.	Etor Alegria	3:02:02
147.	Patxi Urrestarazu	3:06:28
150.	Luis Areta	3:08:01
153.	Erkuden San Martin	3:12:58
157.	Iban Verdugo	3:19:58
158.	Maria Goikoetxea	3:19:59

*Oharra: Saikapenean korrikalariaren jaioterriaren berri ez da ematen, eta sakandarren bat ez agertzea gerta daiteke.

Beroa eta eguzkia nagusi ziren igandean 9:30ean, XI. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa abiatu zenean. Ordurako termometroak 20 graduak gaingiditzen zituen. Ia 200 korrikalari hartu zuten irteera. Aurreko urteko euri jasaren ondoren, eguraldi ona eskertu zen, baina, egia esan, gehiegi berotzen zuen. Proba eskola paretik abiatu zen, plazako lanak direla eta, eta horridura guinea eta sari ematea pilotalekuan egin zituzten. Gure Esku giza katea Lakuntzako goialdetik pasatzeak ikusleak kendu zizkion probari, baina parte-hartzearekin eta lasterketak eman zuen ikuski-zunarekin pozik zeuden antolatzaileak, Zabalarte taldekoak.

Egeak hegan egin zuen Lakuntza-Aralarren

BEÑAT KATARAIN LAKUNTZARRA IZAN ZEN LEHEN SAKANDARRA

Katarain etxean profeta



Korrikalari sakandarrak maila polita eman zuten. Beñat Katarain izan zen lehen sakandarra eta, aldi berean, lehen lakuntzarra, helmugara 21. postuan heldu eta gero (2:13:32). Emakumezkoetan Maite Beregaña izan zen azkarrena (107.a, 2:47:46), probako 4. emakume azkarrena.

Irteera hartu zuten 200 korrikalarietatik 163 iritsi ziren helmugara. Lasterketa Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria izan zen. Nahiz eta probaren hasieran ohiko ibilbidea mantendu -Atazar, Guardetxe, Albi, Mugerdi, Beloki, Unako putzu, Hirumugarrieta- jaitsieran nobedadea izan

zen, eta Sandindegitik barna jaitsi beharrean Aranguneko portutik jaitsi ziren korrikalariak. "Horrela, ibilbidetik pista zatiak kendu eta xenda gehiago sartu ditugu" adierazi zuten antolakuntzatik. Aldaketarekin 4 km inguru gutxiago izan zituen probak, 24,7 km eta 1150 metroko desnibel positiboa.

Azkarra eta polita

Aritz Egeak aurrea hartu zuen hasieratik, eta distantzia polita hartu zuen igotzerakoan. Guardetxera denbora errekorrean iritsi zen, 31:22. Baina jaitsieran erlaxatu zen eta justu, baina bakarrik iritsi zen helmugara (1:58:05). Abderrahin El Qayed 6 segundora sartu zen (1:58:11). Unai Santamariak osatu zuen podiuma (2:00:10). Egea lehenengo aldiz aritzen Lakuntza eta lasterketa "oso polita eta oso azkarra" iruditu zitzaion. Emakumezkoetan Sandra Sevillano gailendu zen (2:26:30), Nerea Amilibiari ia 7 minutu aterata (2:33:07). Zuriñe Frutos izan zen 3.a (2:37:13). "Nire lehen aldian izan da eta izugarri disfrutu dut" adierazi zuen Sevillanok.

Bukaeran auzatea eta masajeak izan ziren guztiendako eta antolakuntzak 1.100 euro banatu zituen saritan. Zabalartek Vitori Urrestarazu eta Ernesto Hernaiz omenatu zituen, orain arte proba babesu dutenak eta berriki jubilatut direnak.

Paniaguatarrek laugarrenak

Kadete eta jubenilendako 16 km-ko ibilbidea prestatu zuen antolakuntzak. 8 jubenilek osatu zuten proba. Ander Ibarguren buru zela (1:11:49). Julen Paniagua urdiaindarra 4.a izan zen (1:14:32). Kadeteetan 6 iritsi ziren helmugara, Josu Galvez buru zela (1:15:17). Kepa Paniagua urdiaindarra 4.a izan zen (1:32:04).

Irurtzundik Ergara korrika

Larunbatean, 10:00etan, Plazaolako iturritik

Irurtzundiko Trinitateko jaiek nobedadea ekarriko dute aurten: Erga Trinitateko herriarteko lasterketa. Larunbatean jokatu da, goizeko 10:00etatik hasita, Plazaolako iturritik abiatuta. Guan taldeak antolatuko du proba.

Korrikalariak banaka aterako dira Plazaolako iturritik eta Erga Trinitateraino joan beharko dute korrika. Antolakuntzak euren lana kronometratuko du eta azkarrena izango da txapelketa. Proba hasi baino lehenago eman daitezke izena.

Botxa

Iraxo txapelketa azken txanpan

Ostiralean final aurrekoak jokoan

Iraxo Botxa Txapelketan 8 bikote lehiatu dira. Ligaxka jokatu ondoren, asteburuan final laurdenak jokatu ziren eta gaur, ostiralean, final erdian txanda izango da. Finala ekainaren 20an jokatu da.

Final laurdenen emaitzak

Tirillas **12** / AHTrik ez **15**
Lirainak **15** / Xabier-Migel-Felix **4**
Erik-Agustino-Xabier **15** / Desesperados **6**
Alejandro-Guillermo-Iñigo **4** / Tximeleta **15**

Finalerdiak

Ostiralean, Iraxon
19:00etan: AHTrik ez / Lirainak
20:00etan: Erik-Agustino-Xabier / Tximeleta

Aizkora

Bederatzigarrena buruan

Urrezko txapela jantzi zuen larunbatean etxarriarrak

Floren Nazabalek trofeoaren armairuan tokia egin beharko du larunbatean Azeitian lortutako txapela gordetzeko. Etxarri Aranazko txapelketa Urrezko Banakako Eusko Label Txapelketa irabazi zuen, Urrezko Aizkora, sekulako lana egin eta gero. Aitzol Atutxa II.a eta Jon Rekondo izan zituen aurkari, baina lehia estuena bizkaitarrek izan zuten.

Guztira 6 lan egin behar zituzten, eta azkenekolanera, 4 kana-erdiko eta 260 ontzako ebakitzeko lanera, Atutxatik 16 segundo atzetik iritsi zen Floren Nazabal. Baina

iraupen proban nagusitasunez ibilizen maisua eta gauzak bere tokian jarri zituen. Segituan hartu zuen aurrea Floren Nazabalek, eta bigarrenenborrerako kontra zuen aldeari buelta eman zion, lehen postua eskuratuz. Atutxa saiatu zen etxarriarraren erritmoari eusten, baina ez zuen lortu eta iraupen proban azkena izan zen bizkaitarra. 14:01ean bukatu zuen iraupen proba etxarriarrak, 16 minututan Rekondok eta 16:01ean Atutxak.

Lan guztiak kontuan hartuta, Nazabalek 24:01 behar izan zuen lan guztiak bukatzeko, Aitzol Atutxak 25:45 eta Jon Rekondok 27:54. Nazabalek bederatzigarren urrez-



Floren Nazabal, txapel berriarekin.

ko txapela jantzi zuen, meritu guztiarekin, eta atzera ere aizkoran koxka bat gorago dagoela demostratu zuen.

Motoziklismoa

Mundialari agur

Alex Mariñelarenaren eroriko larriaren errekupeazioa luze doa

Alex Mariñelarena pilotuak istripularria izan zuen otsailaren 27an Paul Ricard zirkuituan, Tech3 bere taldearekin Mundialerako entrenatzen ari zela. Koman egon zen 6 egunetan. Apirilean ospitalean alta eman zioten eta ordutik errehabilitazio prozesuan dabil.

Ostiralean bere facebookean adierazi duenez, aurtengo Mundialean ezingo da zirkuituetara itzuli. "Orain arte nire bizitzan bizi dudane gogorrenetakoa da hau. Istripuak nire pilotu ibilbidean izan dituen ondorioak onartzea oso gogorra da. Aurtenez ingo dut Munduko Motoziklismo Txapelketan parte hartu. Errekuperazioa aurrei-

Eskertuta



Zaleek, lagunek eta ezagunek bidalitako mezuak asko animatzen dutela nabarmendu du irurtzundarrak. Bestalde, eskerririk beroenak eman nahi dizkie bere babesleei, Targobanki bereziki, eta Tech3 bere taldeari.

kusi baino gehiago luzatzen ari da. Horregatik, nahiz eta gertatzen ari dena onartzea gogorra izan, 2014 urte honi aurpegia eman behar diot. Ziur nago asko ikasiko dudala" onartu du pilotu irurtzundarrak.

Txirindularitza

San Kiriko Txirindula Saria bihar

Aralarrek antolatuta, 16:00etan, kategoria txikiak Etxarri Aranatzen

Bihar, garagarriaren 14an, larunbatean, San Kiriko Txirindula Saria hartuko du Etxarri Aranatzek, 17:00etan. Aralar Txirindularitza Taldeak antolatuta du proba, eta kategoria txikiak lasterketa izanen da. Gynkana proba eta lasterketak izanen dira.

Irristaketa



Lapuente, Vazquez, Imaz eta Ormazabal.

Lau trofeo Sakanara

Larunbatean Antsoain Irristaketa Trofeoak jokatu zen, eta Sakana Irristaketa Taldeak lau trofeo ekarri zituen. Anne Lapuente, Eukene Vazquez, Ekain Imaz eta Oier Ormazabal izan ziren trofeoa eskuratu zutenak.

Kiroldegia

Sutegiren ikasturte bukaerako festa

Igande goizean jolasak eta arratsaldean erakustaldia egin zuten

Igandean Sutegik ikasturte bukarako festa ospatu zuen. Goizean neska-mutikoendako jolasak izan ziren, eta arratsaldean Sutegiko eskolek-gimnasia erritmikoa, futbola, pilota eta irristaketa-erakustaldia egin zuten. Bukaeran musika eta merendu ederra egin zuten.

Atletismoa

Gorka Arratibel 20.a Anuen

Larunbatean jokatu zen, Olaguen, 6. Anue Ibarako Herri Krosa (8,6 km). Daniel Sanzek irabazi zuen, Aitor Seminarioren aurretik (32:05). Gorka Arratibel 20.a sailkatu zen (41:26).

Areto futbola

Magna Xotako altak eta bajak

Magna Xotak, momentuz, 3 jokalariren baja du: Rafa Usin, Joni eta Alex. Bestalde, Javi Eseverri, Roberto Martilek, Dani Saldisek, Jesulitok eta Carlitosek taldean jarraituko dute, kontratua berri eta gero.

Atletismoa

Bakaikun korrika!

X. Aitzkozar Herri Krosa jokatu da bihar, larunbatean. 17:00etan kategoria txikiak ariko dira, eta 18:30ean nagusiak.

Aurten 10. edizioa izanen du Aitzkozar Herri Krosak eta Bakaikuko Bakarrekotexa elkartearaurrealdea izanen du irteera eta helmuga. Probaren antolakuntzan Dantzaleku Sakana klubaren laguntza eta hainbat entitate eta komertzioen babesak izan dute.

Kategoria txikiak eta proba nagusia

Aurrebenjaminen, benjaminen, kimuen, haurren eta kadeteen lasterketak Bakaikuko kaleetan jokatu dira, 17:00etan hasita. Ondoren proba nagusiaren txanda izanen da, 18:30ean. Gazteak, helduak eta beterranoak ariko dira. Bakaikuko eta Iturmendiko dermioen artean markatutako 4.050 metroko ibilbideari buelta bakarria emanen diote gazteak, eta bi buelta helduek eta beterranoek, 8.100 metro osatuz.

Oparia eta merienda

Bakaikuko helmugan lasterketa bukatzen duten korrikalari guztiek oparia jasoko dute. Lasterke-

Sakanako XI. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria



Ekainaren 1ean jokatuak Ziordiko I. Herri Krosak mustu zuen Sakanako Mank-ek antolatutako Sakanako XI. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria. Beste 4 lasterketak puntuatuko dute koparako: XI. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 14) Ergoienako XI. Birak (irailak 20), Sakanako XIV. Herri Lasterketak (urriak 25) eta Altsasuko Barricarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8).

Sakanako 10 hoberenek puntuatuko dute eta gutxienez 4 probatan parte hartu beharko da. Egun, emakumezkoetan Izaskun Beunza, Mari Gwen Davies eta Maite Zabaleta daude buruan, eta gizonezkoetan Javier Moreno, Francisco Javier Gomez eta Javier Borrega.

ta nagusiko irabazleek, gizon nahiz emakumeek, trofeoa jasoko dute. Behe mailan ere trofeoak banatuko dira. Eta eguna borobiltzeko, antolatzaileek merendua antolatu dute korrikalari guztiendako.

Iaz 72 korrikalari aritu ziren; Raul Gandara, gizonezkoetan; eta, Erkuden San Martin, emakumezkoetan, nagusitu ziren. Bigarrena

eta lehen sakandarra Javi Moreno altsasuarra izan zen.

Izena emateko

Aurrez izena emateko, 948 562 034 edo 606 398 802 telefonoetan edo www.dantzalekusakana weborrian. Egunean bertan, proba hasi baino ordu bat lehenago Bakarrekotexa elkartean (helduek 5 euro).

Futbola

Lagun Artea mailaz jaitsi da

Bigarren mailara talde nafarrak ez denez igoko, Lakuntzako taldeak 3. maila galduta eta preferente mailan jokatu du

3. mailan lehiatu da aurten Lagun Artea baino hurrengo denboraldian mailaz jaitsi eta preferente ariko da Lakuntzako taldea. Ligan 17.a sailkatu zen Lagun Artea (38 puntu), postu oso arriskutsuan. Izan ere, Nafarroako talderen batek 2.B mailara igotzea lortuz

gero, 3. mailan jarraituko luke Lakuntzako taldeak. Bestela, preferente mailara jaitsiko litzateke.

Izarrak, San Juanek, Mutilberak eta Osasuna B-k jokatu dute 3. mailatik 2.B mailara igotzeko fasea, Estatuko hainbat talderekin batera, baina lau talde nafarrak txapelketatik kanpo geratu dira, aukerarik gabe. Hori dela eta, Lagun Artea preferente mailara jaitsiko da. Eta oso gutxiatik,

sailkapena oso estu zegoelako. Valtierra, 39 punturekin, salbatu egin da eta 3. mailan jarraituko du eta Lagun Artea, aldiz, 38 punturekin, jaitsi da. Ibarreko plantillarekin eta aurrekontu juxtarekin konplikatua da 3. mailari eustea eta hala ere, Lagun Arteak orain arte eutsi egin dio. Oso gutxiatik preferentera jaitsi egin da baina lakuntzarrei meritua ezin zaie kendu.

Pilota

Txapeldunen ordua

Finalak (bihar, 9:00etan, Irurtzunen)

Benjaminak: Huarte-Beloki (Huarte) / Migeltorena-Rivas (Lagunak)

Kimuak: De la Fuente-Azpiroz (Irurtzun) / Mendibe-Igoa (Ardoi)

Haurrak: Iriarte-Apezetxea (Umora Ona) / Mata-Cuairan (Oberena)

Kadeteak: Ruiz-Moreno (Titin) / Antso-Eskizoz (Zugarralde)

Jubenilak: Espinal-Mariezkurrena (Irurtzun) / Laso-Martija (Huarte)

Seniorrak: Armendariz-Azanza (Irurtzun) / Urretabizkaia-Telletxea (Tolosa)

Irurtzun Pilota Klubak denboraldiari agur



Irurtzun Pilota Klubak 2013-2014 denboraldiari agur esan dio, festatxo batekin. Klubeko pilotariak partidak jokatu zituzten eta bukaeran Barriola pilotariak orogarri bana eman zien klubeko pilotari guztiei. Bukatzeko, bapo merendatu zuten guztiek.

Irurtzun Pilota Klubak antolatutako 22. Irurtzuno Pilota Txapelketa-Lacturale Sariako final handiak bihar jokatu dira, larunbatearekin, goizeko 10:00etatik hasita, Irurtzuno pilotalekuan, Trinitate festen barruan. Txapel-

keta apribilaren 17an hasi zen eta ordutik hona 100 pilotari baino gehiago lehiatu dira.

Irurtzun klubeko hiru bikote iritsi dira finalera, kimuetan, jubenetan eta seniorretan, eta ea txapelak etxean uzten dituzten.



Nonerabili

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako beturreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

MARIA LUISA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bate hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko irakurketako liburuetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, %5ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.



Mendi txirrindularitza

585 biker Altsasun

BURUNDA KLUBAK ANTOLATUTAKO 19. ALTSASUKO BTT ZEHARKALDIAN DORRETXIKI ETA ARANIA IGO ZITUZTEN LEHENENGOZ

Eguraldia lagun, 585 biker animatu ziren Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako 19. Altsasuko BTT zeharkaldia osatzera. Aurten proba ez lehiakorrek 49 km zituen eta edizio guztien artean gogorrenetakoa izan zen.

Araniara

Proban lehendabiziko aldiz Dorretxiki eta Arania igo ziren, eta horrek desnibela igo zuen, 904 metroko desnibel positiboa izan baitzuen probak. "Ingurune pribilegiatu batean gaude eta horrek urtero ibilbidean aldaketak egitea ahalbideratzen gaitu. Ibilbidea oso polita izan da eta paisajearen ikuspegiak izugarriak" adierazi zuten Burunda klubeko arduradunek.

Igandeko eguraldi bikaina kontuan hartuta, antolakuntza 800-1000 txirrindulari hartzeko prestatuta zegoen. Batez bestekoa 800 pertsonakoa da, baina igandean Gure Esku Dago katearen eragina nabaritu zen eta 585 bikerrek hartu zuten irteera. Guztiak oso gustura azaldu ziren ibilbidearekin eta baita antolakuntzarekin ere. Altsasuko aterata eta herrian hainbat txokotan ibili ondoren, Ameztiarantz jo zuen tropelak, Zapardi, Orobeko harrobi zaharra eta Sorozarretara iristeko. Handik Dorretxiki eta eta Arania igo zituzten, San Pedrorra heldu eta Urdiaingo igerilekuetatik pasa ondoren Iturmendiko dermioraino heltzeko. Handik buelta hartu, San Pedro-



Bikerrei asko gustatu zitzaie ibilbidea. ANA VILCHES.

rantz jo eta Otaitik sartu ziren Altsasuko helmugara. Tartean hornidura guneak zeuden.

Txirrindulari bat ospitalera eraman behar izan zuten lepa-

taia apurtuta, eta DYAk zazpi pertsona artatu zituen zauri arinengatik. Guztia ongi antolatzeko 100 pertsona inguru aritu ziren lanean.

Frontenisa

Emakumeen Txapelketako 2. jardunaldia jokoan

Gaur Mank-ek Etxarri Aranazko Gure Pilota klubarekin antolatutako Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketako 2. Jardunaldia jokatuko da, Etxarri Aranatzan.

1. jardunaldiko emaitzak:

Edurne-Vanesa / Leo-Maidar (ez zen jokatu)
Yanira-Saioa 30 / Jone-Amairu 11
Laura-Leire 21 / Andrea-Izar 30
Garazi-Lohitzune 30 / Uxue-Ane 28

2. jardunaldia

Ostiralean, Etxarri

19:00etan: Leo-Maidar / Yanira-Saioa

19:20etan: Jone-Amairu / Edurne-Vanesa /

19:40etan: Andrea-Izar / Garazi-Lohitzune

20:00etan: Laura-Leire / Uxue-Irati

Parapentea



Parapente egunarekin pozik

Baiza taldeak Sakanako Parapente Eguna antolatu zuen larunbatean. 100 pertsona inguru bildu ziren goizetik Iturmendin, baina hego haize bizi-bizirik ez zuen hegan egitea utzi. "Egunaren beste helburua gure bailara erakustea zen, eta horretan ibili ginen. Gure paisajea, hegaldiak egiteko tokiak eta beste erakutsi genizkien etorritakoei. Euskal Herria, Madril, Ciudad Real eta Leongo jendea bildu ginen. Guztiak txundituta geratu

ziren Sakanak hegan egiteko eta turismoa egiteko dituen aukerekin" adierazi digu Iai Arratibelek. Taldeak bajera bat prestatu zuen Iturmendin eta bertan zerjan eta zer edan egon zen egun osoan.

Baina, haizea baretu, iparrera aldatu eta arratsaldean parapenteak hegan ikusi genituen. "Jendea, oso-oso pozik. Babesleek emandako opariekin are gehiago!" gaineratu du Iaiok. Gauean 120 kide bildu ziren afaltzera eta kontzertura.

Automobilismoa- Rallyak

Sakandarrak Arronizen

3 TALDE SAKANDAR LEHIATU ZIREN

Maiatzaren 31n hainbat sakandarrak hartu zuten parte I. Arronizko Lur Gaineko Rallysprintean. Proban hiru eremugainditu behar izan zituzten pilotuek. Lasterketa Jorge Gutierrez eta Felipe San Juanek irabazi zuten (Lancer Evo IX, 23:14). Aitor Fernandez eta Iker Azkargorta (Ford Focus) 17. ak sailkatu ziren (26:30.100), Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Goikoe-

txea 18. ak (26:30.400) eta Oier Larrañaga eta Iñaki San Migel (Citroën AX) 22. ak (29:42.500).

Proba Nafarroako Rally Txapelketarako eta Nafarroako Lurgaineko RACVN Koparako puntuagarri izan. Azken honetan Ford Focus ari dira lehiatzen, hau da, Aitor Fernandez-Iker Azkargorta eta Iban Lopez de Goikoetxea-Javier Goikoetxea.



Taekwondo

Taekwondoa Labaderotik aterako da

Larunbatean, 12:00etan Altsasuko Zelandi kiroldegian erakustaldia

Altsasuko taekwondo eskolako ikasleek ikasturte akaberako erakustaldia eskainiko dute bihar: "Gurasoek euren seme-alaben garapena ikusteko aukera bat da. Klasera etortzen ez baitiet uzten", azaldu digu Gerardo Montero Rivera irakasleak. Guztira 24 ikasle ariko dira, gerriko txuritik gerriko beltzko 2. dam-era arteko maila dutenak.

Bestalde, Taekwondoan aurrera egin dutela adierazten duten gerriko aldaketarako azterketak ere egin dituzte Altsasuko ikasleek. Denak, gerriko marroia dutenak izan ezik, horren ondoren gerriko beltza heldu delako. Azterketa ofiziala Iruñean da eta "ongi prestatuak egon behar dute eta badaude ez dakizkiten gauzak. Heldu den urtean gerriko beltza ateratzeko pare bat prestatzea da asmoa", azaldu digu Monterok.

Prestatzaileak sakandarrak erakustaldira gonbidatu ditu, taek-



Irakasleak azaldu digunez, taekwondoak ez du adinik eta probatzera animatu du. Esan digunez pasa den ikasturtean 54 urteko gizona hasi zen, baina aurten ezin izan du etorri. Eta gaineratu du bere klubean, Ardoin, "duela 10 bat urte ia 50 urteko pertsona talde bat sartu zen eta han segitzen dute. Bizkortasuna eta potentzia mantendu eta hartzeko egokia da". Txikiekin taekwondoa psikomotritate tresna gisa erabiltzen dutela ere gaineratu du: "lurrean, oin hutsik lan egiteak. Etxean ezin diren gauzak egiten dituzte. Kontakua jendearekin, lurrera bota eta halakoak egiteak txikiekin psikomotritate esnatzen die".

wondoa ezagutu dezaten. Animatu gero ikasturte berrian, interesatuak konpromisorik gabe probatzera etortzeko animatu ditu: "ez dago inolako arazorik aste bat edo bi probatu eta gustatuz gero gelditzeko. Ikasle koadrila majoa izanen du ondoan".

Irakaslea

Altsasuko Taekwondo eskolan Antonio Martinez Munchi lekukoak hartu zion Gerardo Montero Rivera da, 28 urte ditu eta adin horri dagokion gerriko beltza eta 4. dam-a du. Bosgarrena ateratzeko prestatzen hasia da.

Enduro

Motor festa Irañetan

MARCOS BERAZA SENIORRETAN BIGARRENA IZAN ZEN

Igandean Irañetako Enduro proba antolatu zuen Moto Club Ziki Team taldeak. Enduroak motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu, bien arteko nahasketa da. Pilotu ugari lehiatu ziren eguzkipean eta motor festa polita izan zen Irañetakoa.

Beteranoetan Egoitz Peñagarikano gailendu (20:24) zitzaion Alberto Maciasi. Alain Zubieta 8.a izan zen. Seniorretan, trofeoan, Igor Camino izan zen txapel-

duna (19:10), Aitor Barandiaran eta Unai Mugikaren aurretik. Migel Angel Perez 5.a izan zen. Seniorretan, txapelketan, Borja Nieto (18:05) izan zen lehena, Marcos Beraza irintarraren aurretik. Josu Arto la 4.a eta Jon Otamendi 7.a sailkatu ziren. Juniorretan, trofeoan, Urko Garmendia izan zen onena (19:54). Eta juniorretan, txapelketan, Luis Rey nagusitu zen (19:54). Iker Mintegi 2.a izan zen.

Irañetako Enduro Probako iru-



Probako une bat.

diak ikusi nahi dituenak, ondoko bideoa du ikusgai youtuben: <https://www.youtube.com/watch?v=prv7kCP14Mg&index=1&list=HL1402486066>.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko
11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora



Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Pisu bat alokatzen da Iruñean. Azpilagaña auzoan, Rio Ega kalean. Nahi izatekotan, garaje plaza ere badugu alokatzeko, pisutik gertu. Hots egin 649 30 41 65 telefonora (Nerea).

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Urdiaingo Aitziber elkarteko taberna alokairuan uztaileko eta abuztuko jaietarako.

Enkante bidez emanen da, eta elkarteko edozein bazkide azken aukera egiteko eskubidea izango du. Alokairuko hasierako salneurria 2.000 eurokoa da. Interesatuak Aitziber elkartera agertu beharko dute ekainaren 13an, 20:00etan.

Kartazal itxian izango da bakoitzaren diru eskaintza. Erabakia egun horretan bertan hartuko da, 20:30ak aldera. Informazio gehiago: aitziberelkartea@gmail.com

Oparitakoak / opatutakoak

OPATUTAKOAK

Gizonezko erlojua opatu da. Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan. Bertatik pasa.

GALDUTAKOAK

Urrezko katea eta gurutz bat. Galdu ditugu Altsasun edo Etxarriko Borda jatetxearen inguruan, ekainaren 7an. Sarituko da. Hots egin 948 56 36 89 telefonora.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu

Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: [izen ematea http://www.ifes.es](http://www.ifes.es)

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Arbizuko udal ludotekan izen-ematea. Ekainaren 18ra arte zabalik dago. Uztailaren 1etik 31ra arte izanen da, haur batek 80€, bi haurrek 130€ eta hiru haurrek 150€ ordaindu beharko dute. Arbizuko Udala.

Argazki zaharrak bilatzen. Etxarriko garai bateko KAXETA zaharrenden argazkiren baten bila gabiltza. Gaur egun liburutegia eta eskultura dagoen tokiaren kara-kara zegoen (garai bateko eskola zaharrenden parez pare). Tel 626 21 66 12 eta maizlore@gmail.com

Zelandi eskolako komunitatearen topaketa.

Hilaren 21ean poteatzeraz eta afaltzeraz elkartuko dira Altsasuko Zelandi eskolako ikasle, ikasle ohi, irakasle, irakasle ohi, guraso eta lagunak. Txartelak eskolan, Liburundan, Lurrazpin, Gautxorin, Kaixon eta Koxkan.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru biltzaile hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalarindako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta

finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erditmoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpainak. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Filosofia - trukea. Informazio gehiago larrezabaldd@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure belexeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean parte deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean

eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-gardoa, lekaleak, ozpina... Informazio gehiago: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gazte txer ondora, irrata zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriak ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-mank.com posta elektronikokoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz.

JAIOTZAK

• **Alejandro Quesada Gomez,** garagarriaren 6an Irurtzunen.

EZKONTZAK

• **Ander Claver Goikotxea eta Maite Mazkieran Apestezia,** garagarriaren 6an Altsasun.

HERIOTZAK

• **Faustino Mozo Marin,** maiatzaren 29an Unanun.
• **Inmaculada Lizarraga Lizarraga,** garagarriaren 5ean Unanun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Informazio gehiago: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolaguntza. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak diru emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru biltzaile.

Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juri-dikoa.

Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrik sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilguneraren jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

kultura >>

ANE ETXEGOIEN ALTSASUN ARIKO DA: Kulturako Departamentuan antolatutako Kultur jaialdiko musika programak ekitaldi bat aurreikusten du Altsasun: Ane

Etxegoien. Donapaleuko kantaria agorrilaren 27an, asteazkenean, 21:00etan egonen da Altsasun.

Kantu altsasuarren bigarren bilduma aurkeztuko du **Trasteandok**



Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Diskoa bihar bertan jarriko dute salgai, 7 eurotan. Ondoren dendetan salgai utziko dute.

Biurte bete dira Trasteandoko taldeak *Altsasuko herri kantak I.* diskoa argitaratu zuela. Altsasuko musika ondarea berreskuratzeke ikerketa eta musika-etnografia lan baten emaitza izan zen disko hura. Orduan azaldu zuten kantu altsasuar gehiago opatu zituztela eta bigarren disko bat sor zezaketela. Hemen da diskoa *Altsasuko herri kantak II.* eta Trasteandok bihar jendaurrean aurkeztuko du, Javier Bergara Bergerak gidatutako emanaldian.

Altsasuri eta altsasuarrei

eskainitako lana da bihar Trasteandok aurkeztuko duena, Trasteandoko musikariendako "talde-memoriaren kantak; denboran iraun dutenak eta garenaz asko dioen musika-tradizioaren onda-

Laguntzaileak

Musika talde altsasuarrek esker ona azaldu nahi izan die zuzenean edo zeharka musika bilduma egiten lagundu dieten guztiei. Besteak beste: Vicente Zufiaurre, Angel Iriarte (Potaje), Jesus Aldasoro, Conchi Zelaia, Agueda Percaz, Jose Bergera, Felipe Villareal, Candi Arnanz, Angel Aldasoro,



rea" dira bihar aurkeztuko dituzten kantak. Dora Salazarren azala du diskoak eta bere barruan dagoen liburuxka kantutegi moduan eta azalpena ematen duen oharrekin prestatu dute atzera ere.

Diskoan XX. mendeko 40ko, 50eko eta 60ko hamarkadetakoa 18 kantu jaso ditu taldeak. "Gure guraso eta aitona-amonak dibertsio garaian, bazkaldu ondoren eta festa-parrandatan kantatzen zituztenak. Baina urte zailtan ere penak ez zituzten, tristurak arindu egera penagarri eta behar handia-goetatik ihes egiteko baliagarriak ere izan ziren kantuak". Musika ondare hori egungo eta etorkizuneko belaunaldiei utzi nahi die Trasteandok disko berriarekin.

Juanita Larrea, Fernando Larraza, Gerardo Olmedillo, Juan Gonzalez, Tomas Martinez, Martin Lezea eta Javier Ignacio Elizalde. Biharko emanaldian Trasteandok musikari gehiagoren laguntza izanen du: Jose M^a Augusto, Iñigo Gokoetxea, Leire Aiestaran, Jesus Iriarri, Kostantxo Gonzalez, Josetxo Lumberras, Javier Herrero, Javier Martinez eta Asier Eizagirre.

Pintzeletik Olatzagutia

Pintura azkarreko txapelketa domekan, 9:00etatik aurrera. Epaia 18:30ean jakinen da

Olatzagutiko Udalak zazpigarrenez pintura azkarreko lehiaketa antolatu du. Parte hartzen duten margolariak Olatzagutia bera, herri ingurua eta bertako jendea hartu beharko dute gaitzak koadroak sortzeko. Edozein teknika erabili dezakete sormenari bide emateko. Domekan helduek 8:00etatik 9:00etara koadroa zigitatu eta 18:00ak arteko

epea izanen dute lanak aurkezteko. Txikiagoek 10:00etan ekinen diote margotzeari.

Txikienen mailetan izen ematea itxita dago eta 15 bat dira izena eman dutenak. Gazte eta helduen mailan domekan bertan izen eman daiteke. Horretarako kultur etxetik pasa beharko dute 9:00ak baino lehen. Bestela, gaur bertan, Olatzagutiko udaletxean, 948 562 446 telefonoan (astegunetan 10:00etatik 14:00etara) edo kultura@olazti.com e-postan (pintura lehiaketa aipatuz).

Arrebote kamara aurrean

Herenegun hasi eta atzo segituko zuten Arrebote taldekoek *A microfono cerrado* kantuen bideo kliparen grabazioarekin. Javier Galeanoren esanetara jarri da, atzera ere, taldea eta Iortia kultur gunean sartu dira bideoa grabatzera. Eta haiekin makina bat sakandar ere. Bideo klipetan aurpegi ezagunak ere aterako dira: Irujo, Bengoetxea eta Zubieta pilotariak, Kutxi Romero, Chula Potra, Pablo Carbonell...

Argitaratu berri duten *Leihotik* disko berriaren aurkezpena hilaren 21ean egingen dute, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur

Los del Rayo

Talde altsasuarrek bihar musuko du Oier Albizurrekin grabatutako bideoa. Lurrazpitabernan izanen da. 20:30ean kontzertu akustikoa emanen du taldeak eta 23:00etan entxufatutako kotzertua emanen dute Lurrazpin.

gunean. Emanaldia bigarren bideo-klip bat grabatzeko erabiliko du Arrebotek. Guztiaren lekuko izan nahi duenak kultur gunean ditu sarrerak eskura.



bazterretik

Andoni Igoa

Eiffel

Donostiara gerturatu nintzen azken aldian trenetara joatea bururatu zitzaidan. Ezaguna egin zitzaidan tren geltoki bitxi hura baina sekula egon gabe nengoen. Bertako tabernan kafe bat hartzen ari nintzela taberna zerbitzariari galdetu nion ea bazekiengeltokiaren historiari buruz zer bait. Harro asko esan zidan geltoki hori Eiffel frantziar famatuaren obra bat zela. Hori izan zitekeen ezaguna egite-

aren arrazoia, aurreko batean Parisen izan bainintzen besteak beste Eiffel diseinatutako dorre erraldoian. Badakit Parisko dorrea eta Donostiako tren geltokia konparatzea astakeria bat dela, baina egiturak diseinatutako orduan sistema eta dekorazio berak dituztela esango nuke.

Aurrerago zertxobait aztertu eta, ez dut argi Eiffel Euskal Herrian izan zenik. Honi buruz hainbat iritzi baitaude, baina bere esentzia geltoki hartan nabarmendu

nuen. Munduan zehar makina bat eraikin ospetsu ikus ditzakegu arkitekto eta ingeniari frantziar honen sinadura dutenak. Batik bat, Oportoko zubia, Budapesteko tren geltoki ikusgarria, New Yorkeko "Estatua de la Libertad" eta nola ez Pariseko ikur garrantzitsuena bilakatu zen dorrea.

Pariseko Eiffel dorrea munduan dauden eraikinetatik maitatuenetako bat dut eta aurten ezagutzeke zortea izan dudanez, bere

argazki bat ipiniko dut adibide gisan. Hemen, ikusgarria iruditu zitzaidan hankatik mugitzen den igogailua agertzen da. Eraikinari buruz entzun dudana bitxikeria bat kontatuko dut. 324 m-ko dorre hau 1889. urtean eraiki zen Pariseko erakusketa unibertsalaren ondorioz. Askok jakingo ez duten bezala, erakusketa bukatu eta dorrea berriz desmuntatzeko asmoa zuten. Horrela izan balitz, zer izango zen gaur egun Paris Eiffel dorrekerik gabe?



Ilustrazioa (582 lan)		
LHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena		
1. Alaitz Larraza Ligero	Altsasu: Zelandi IP / Koldo Arnantz arte eskola	
2. Eder Arrizabalaga Otxoerrarte	Olatzi: Iñigo Aritza ikastola / Koldo Arnantz arte eskola	
2. Jon Patxi Okiñena Sánchez	Irurtzun: Atakondoa IP	
LHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena		
1. Mikel Lizarraga Senar	Urdaian: Urdaingo Herri Eskola	
1. Maialen Biain Gofi	Etxarri Aranatz: Andra Mari ikastola / Koldo Arnantz arte eskola	
2. Yuri Andreo Lerma	Altsasu: Zelandi IP / Koldo Arnantz arte eskola	
Komiki saila (100 lan)		
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleak		
1. Jon Lapurra	Unax Ijurra Artieda	Etxarri Aranatz: Andra Mari ikastola / Koldo Arnantz arte eskola
2. San Ferminak	Gorka Egurtza Irisarri	Lakuntza: Luis Fuentes ikastetxe publikoa
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena		
1. Animalien mendekua	June Moreno Labaca	Ziordia: Jesusen Bihotza ikastetxea
2. Jaimito eta Kuski	Juliana Fernandes de Sousa	Olatzi: Jesusen Bihotza ikastetxea
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena		
1. Mikel Amazonasean	Aitor Bengoetxea Larunbe	Altsasu: Iñigo Aritza ikastola / Koldo Arnantz arte eskola
2. Bahiketa Josuri	Ander Gil Amado	Olatzi: Iñigo Aritza ikastola / Koldo Arnantz arte eskola
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena		
1. Ezin nuen gehiago	Mikel Maiza Razkin	Etxarri Aranatz: Iturruma BHI
2. Joan-etorriak	Markel Galbete Arnantz	Olatzi: Aralarko Mikel Donea BHI / Koldo Arnantz arte eskola
Narrazio saila (156 lan)		
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena		
1. Gelako armiarmak bere bizia kontatzen du	Maria Ixurko González	Altsasu: Zelandi IP
2. Zergatik dituzte planeta batzuk sateliteak?	Jon Salinas Jaka	Etxarri Aranatz: Andra Mari ikastola
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena		
1. Udako bizipenak	Julen Soto Satrustegi	Lakuntza: Andra Mari ikastola
2. Burua moztu zioten emakumearen kasu misteriosua	Sortze Arroniz Morcillo	Altsasu: Aralarko Mikel Donea BHI
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena		
1. Déjà vu eroa	Ainhoa Lopez Ganboa	Iturmendi: Aralarko Mikel Donea BHI
2. Udako egun bat gehiago	Janire Caro Clemente	Altsasu: Aralarko Mikel Donea BHI
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena		
1. Izpi bat ere ez bihotz sakon izoztuan	Laida Etxeberria Kaiuela	Bakaiku: Goierri Eskola
2. Hutsik		
Poesia saila (73 saila)		
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena		
1. Loreak	Iñaki Reparaz Marroyo	Arbizu: San Donato IP
2. Amodioa eta bihotza	Josu Mera Suarez	Urdaian: San Donato IP
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena		
1. Zu	Aimar Araña Martxueta	Etxarri Aranatz: Andra Mari ikastola
2. Bizia	Pello Iraola Rodríguez	Altsasu: Jesusen Bihotza ikastetxea
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena		
1. Hitzak, esaldiak, testuak	Hodei Zia Lopez	Altsasu: Aralarko Mikel Donea BHI
2. Denbora	Ainhoa Lopez Ganboa	Iturmendi: Aralarko Mikel Donea BHI
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena		
1. Samina	Marina Arbizu Perpiñá	Iturmendi: Aralarko Mikel Donea BHI
2. Zuei esker, sufrimendua galtzaile	Amagoia Hermoso de Mendoza Sainz	Uharte Arakil: Aralarko Mikel Donea BHI
Euskaltegiak eta Mintzakideak		
1. maila (B1 maila arteko ikasleak)		
Irririk ez zuen herria	Cecilia Lobato Foulques	Olatzi
2. maila (B2 maila arteko ikasleak)		
Lizarragako aitona	Jesus Goena Andueza	Etxarri Aranatz
3. maila (C1 maila arteko ikasleak)		
Altsasuko zubia	Maitte Fuentes González	Altsasu

Sortzaile uzta berria



Maria Markotegi sormen lehiaketetako sariak banatu zituzten atzo. Sakanako ikasleek ilustrazio, komiki eta literatur sailetan parte hartzeko aukera izan zuten. Sail bakoitzean lau maila izan dira eta 29 sari banatu ziren guztira (1.700 euro guztira). Euskarazko sormena sustatzea helburu duen lehiaketako sariak Euskara batzordeko buru Maite Aldazek eta Olatzagutiko zinegotzi Mikel Askargortak eta Patricia Fernandezek eman zituzten.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako lehiaketako lau sailetan 911 lan

aurkeztu ziren, honako ikastetxe-etakoak: Jesusen Bihotza ikastetxea, Aralarko Mikel Donea BHI, Zelandi ikastetxe publikoa, Iñigo Aritza ikastola, Urdaingo Herri Eskola, Arrano Beltza ikastetxe publikoa, San Donato ikastetxe publikoa, Andra Mari ikastola, Luis Fuentes ikastetxe publikoa, Domingo Bados ikastetxe publikoa eta Atakondoa ikastetxe publikoa.

Ikastetxeko ikasleekin batera, 10. urtez, euskaltegian ikasten ari direnei eta Mintzakide programako kideei zuzendutako lehiaketako sariak ere banatu ziren. Hiru maila izan ziren, euskara ezagutza mailaren arabera.

AEBko 40ko hamarkadako doinuak

Gaur, 22:00etan, Olatzagutiko Sutegi parkean

Dr. Maha's Miracle Tonic taldeak swing, rhythm and blues eta mambo doinuak eskainiko ditu gaurkoan Olatzagutian. Euren ikuskizunean bilbotarrek XIX. mende akaberako eta XX. mende hasierako bodebilei omenaldia egiten diete. Horretarako propio jantzita, ikuskizun haietan musikariak eta pailazoak zeuden. Haiek denetarako sendagarriak ziren edabeak saltzen dituzten hitzontzien laguntzaileak ziren. Hura guztia berrituko da gaur, ikuskizun barregarrian.

Berako rockeroa Lakuntzan

Larunbatean, 20:30ean Lakuntzako Sorgiñak tabernan



Kulturille programa-zioak Petti bakarlarria ekarriko du. Hark bere amerikar sustraiko doinuak eta ahots sakona ekarriko ditu. Folk, blues eta rockaren bidegurutzetan barna ibilbide luzea egin duen musikaria da. Bakarkako bost disko kaleratuak ditu eta Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda edota Barrence Whitfield kantariekin partekatutako diskoak ere.

Rock eta tekno doinuak Larrazpin

Gaur eta bihar gauean, Irurtzungo gazte elkartean

Trinitate festei hasiera emateko rock doinuak izanen dituzte gaur Larrazpin. Altsasuko Desvarios varios, lekunberriarrek eta irurtzundarrek osatutako Sykorax eta Leitzako Aske taldeak joko dute gaur, 23:00etan hasita. Bihar, bestalde, Larrazpitek VIII jaialdiak musika elektronikoren zaleak elkartuko ditu atzera ere. Bihar, 21:00etatik aurrera, disko jartzaile zarpikote bat ariko da musika jartzen: Unai Kox, Connor Noctambuss, Rafagass, P. Leza, Txen, Koke vs Borsek eta Eder Pardo.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS
Jose Larraza Legarra
Etxebizitzen administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378
Bizilagunen komunitateak
Etxebizitzen administrazioa
Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraza@gmail.com

Egin zaitez
bazkide
www.guaixe.net
beleixeguaixe

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 10%	euria: 45%	euria: 25%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 14 Max: 24	Min: 12 Max: 19	Min: 11 Max: 16	Min: 11 Max: 18	Min: 10 Max: 20	Min: 10 Max: 23	Min: 11 Max: 24	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	31.1	3	15.8
Altsasu	29.5	5	3
Aralar	22.8	3.3	9.3
Urbasa	27	2	2.7

: ilargiaren aldia >>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	19	27	5	12

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe guaixe

Garagarrikako bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtaketa Gazte Zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
2. Artzako kanpinea %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak eta Gazte Zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte Zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte Zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.



>> 11 galdera

Irati eta Urko Orritz taldeko kideak

Testua: Maialen Huarte Arano

- 1. Bigarren aldia da Orritzek dantzari eguna antolatzen duena. Dena prest dago biharko?**
Azken egunetako prestaketak baino ez dira falta. Oro har, urte osoan aritu gara guztia antolatzen. Lehendabizi dantza taldeko 10 lagun hasi ginen lehen hitzorduak lotzen eta egunean bertan, alegia bihar, jende gehiagoren laguntza beharko dugu. Bigarren aldiz antolatuko dugu eta badugu esperientzia, baina aurtengoan dantzari gehiago bilduko dira.
- 2. Zenbat dantzari elkartuko zarete?**
850 baino gehiago. Nafarroa oso 39 taldek hartuko dute parte Nafarroako dantzari egunean.
- 3. Irurtzunen izanen da hitzordu nagusia, baina Sakana guztira heldu nahi duzue eta sakandarrak Irurtzuneran hurbiltzea ere bai.**
Erronka handia izan arren, jaiak ez dugu Irurtzuneran bakarrik mugatunahi. Arratsaldeko lehen orduetan Sakanako hainbat herritan izanen dira dantzan eta Lekunberriera ere iritsiko dira. Emanaldi horiek ikusi ostean, dantzariak aparte, herritarrek ere Irurtzuneran etortzea nahi dugu. Lehenbizi Sakana jarri nahi dugu dantzan

- gero Irurtzun dantzan jartzeko.
- 4. Zenbat lagun ari zarete dantzari egunean murgilduta?**
Orritz dantza taldeak hartu du lana beregain, baina Irurtzungeo herritarrek lan handia egin dute taldekideekin batera. Larunbatean kolektibo eta elkarte askoren babesa izanen dugu eta ezinbestekoa da dantzari eguna prestatzeko. Zortzi udaletzek gainera laguntza ekonomikoa ere eman dute eta euren herrietara dantzariak eramateko aukera eskaini digute.
 - 5. Dantzari eguna zer izanen da?**
Kultura eta folklore ikuskizuna izanen da. Dantzariak herrian barna ariko dira kalejiran eta gero taula gaina izanen dute euren erakustaldia egiteko. Hortaz aparte, dantzialdia izanen da afaldu aurretik, eta ondoren afariarekin batera kiroldegian bat eginen dute dantzariak. Gauean, gune berezia antolatu dugu Gernika plazan. Gainera, Irurtzungeo festa txikiarekin eginen du bat dantzari egunak eta erraztasunak jartze aldera, sakandarrendako Jaibus zerbitzua izanen da gauean.
 - 6. Ekitaldi nagusia Irurtzunen izanen da baina beste herrietara ere iritsiko da oihartzuna.**
Bai. Arratsaldeko lauretan Sakanako herriek eta Lekunberriko dantzariak izanen dituzte. Arratsaldeko sei terdietan Irurtzunen eginen dugu kalejira eta zazpietan ekitaldi nagusia izanen da plazan. Horren ondoren, dantzialdia izanen da Kiki Bordatxorekin batera eta afaria eskainiko diegu dantzari guztiei. Gauean parrandan segitzeko aukera izanen da, herrian eta bereziki Gernika plazan.
 - 7. Orritzek aurten 25 urte eginen ditu udazkenean. Horrek bultzatu du taldea dantzari eguna antolatzerara?**
Aitzakia bat behar genuen eta

- urteurren borobila ospatzeko modua izan da Nafarroako dantzari eguna antolatzea. Dantzariak betetako jaiak Orritz 25 urteak gogoraziko ditu. Ez da urteurrena ospatuko den egun bakarria izanen, udazkenean beste zerbait egiteko asmoa baitugu.
- 8. 850 dantzari hartuko dituzue. Inoiz ospatu den dantzari egunik jendetsuenaren bezperan, zer sentazio?**
Lan handia izan da horrenbeste dantzari elkartu ahal izatea. Mereziko duenaren esperantza dugu eta eguna hurbildu ahala urduritasuna hazi egiten da. Egun borobila izanen dela uste dugu, Nafarroa oso 39 talde elkartzeak sortuko duen dantzaren festa izanen delako.
 - 9. 25 urteotan zer izan da Orritz?**
Dantza talde bat baino gehiago izan dela esanen genuke. Irurtzungeo gazteak eta inguruko bailareta-koak elkartu dituen taldea izanda. Dantza eta kultura barneratzeaz eta zabaltzeaz aparte, elkarren artean ezagutu eta lagun arteko taldeak osatzeko ere balio izan du.
 - 10. Osasuntsu al dago gaur egun taldea?**
Bai. Oraindik urte asko iraun dezakeen taldea da. Hogeita bat neska eta hamabi mutil ari gara, ostiraleroko entseuetan parte hartzen. Hortaz aparte, dantzari txikiak ere ehunka dira. Beraz, osasunez sano gabilta eta etorkizuna ere ziurtatuta dugu.
 - 11. Zergatik egin beharko luke jendeak bat dantzari egunean?**
Egun berezia, hunkigarria eta inoiz ez bezala dantzari andana bilduko dituen eguna izanen delako. Nafarroari erakutsi behar diegu dantzari eguna zer den eta jakin behar dugu Nafarroa dantzarazten. Arratsaldeko hitzordua polita izanen da, gauean ere gozatzeko aukerarekin.

Zapia buruan, ibili festetan!

948 564 275 argi@guaixe.net

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

%5eko deskontua Bierri Fundazioko bazkideei